

hh
hik hasi

Haur Filosofia

Euskaraz irristatuz gozatu

Dramatizazioa lehentasunezkoa da

Betaurreko kritikoak jantzita, hobe

Zer diozue ikasleek azterketez?

Mantangorri

Irune Garaikoetxea Diaz



“ Jakintza gai desberdinetatik datozen irakasleak
elkarrekin lanean jarriko ditu curriculum berriak ”

BEGOÑA PEDROSA

UXUE ALBERDI – AINARA AZPIAZU



Xixili ez dago sekula bakarrik;
bere irudimena elikatzen duten
zorrien zirriak maite ditu.



AURKIBIDEA

GAIA / 10

HAUR FILOSOFIA

Dogmatismotik urrundu eta pentsamendu kritikoa, autonomia, sortzailea eta arretatsua bultzatzea du helburu Jakinmin elkarteak. Eta horretarako antolatzen dituzte, besteak beste, Haur Filosofia saioak. Oro har, hausnarketarako espazio gutxi dugu gaur egungo gizartean eta garapen integralerako eta gizarte kritikoagoa eraikitzeko bidean giltza dira saio horiek.

ELKARRIZKETA / 18

BEGOÑA PEDROSA

Datorren ikasturtean martxan jarriko den curriculum berriaz aritu da Begoña Pedrosa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuordea **Hik Hasirekin**. Denbora asko beharko duten aldaketak abiatuko dira, baina inportanteena hastera denez, irakasleei eta ikastetxeei horretan laguntzen hasiak daude. Ziur dio eremuka lan egiteak denei onurak ekarriko dizkiela, ikasleei, irakasleei zein ikastetxeei.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitzu, Olatz Lasagabaster.

Erredakzio batzordea: Mikel Agirrezabala, Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe

Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia. **Administrazioa:** Uxue Ugartemendia. **Azaleko argazkia:** Monika del Valle / Foku. **Diseinua:** Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANTZA S.A.L. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2022-5-23). Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Gelako egunerokoa alda dezakeen akuilua

10 GAI NAGUSIA

Haur Filosofia

18 ELKARRIZKETA

BEGOÑA PEDROSA

“Curriculum irakasleek egin behar dute, ez politikariek”

24 ESPERIENTZIAK

Euskaraz irristatuz gozatu

26 EKARPENAK

Dramatizazioa lehentasunezkoa da

30 EKARPENAK

Aniztasuna sustatu, euskal hezkuntza sistema propiorako bidean (II)

34 AHALDUNTZE ESKOLA

Betaurreko kritikoak jantzita, hobe

36 GALDEIDAZU

Zer diozue ikasleek ikasturte amaierako azterketek eta selektibitateaz?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Mantangorri

42 ATZEKO ATETIK

Irune Garaikoetxea Diaz

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Gipuzkoako Foru Aldundia



zerbitzua eta lana euskaraz



Gelako egunerokoa alda dezakeen akuilua

editoriala

IRAKASLEAK ETA IKASTETXEAK DIRA CURRICULUMA ETA ERALDAKETA EGIN BEHAR DUTENAK. ZEREGIN HORRETAN FUNTSEZKOA DA BEGIRADA ALDATZEA, JAKINTZA ARLOAK LOTZEA ETA ELKARLEAN ARITZEA



Curriculum berria dator Hego Euskal Herrira, eta horretaz aritu da Begoña Pedrosa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuordea zenbaki honetako elkarrizketa nagusian; curriculumaz, eraldaketa prozesuaz eta berrikuntzaz.

Titularrera ekarritako ideia azpimarratzekoa da: “Curriculumak irakasleek egin behar dute, ez politikariek”. Curriculumak behetik gora egin behar dela azpimarratzen du, dabilzanek egin behar dutela, irakasleek eta ikastetxeek. Berrikuntza hiru estamentutatik eraginez egin behar dela nabarmentzen du: irakasleak, ikastetxeak eta administrazioa. Lehen biek egin eta hirugarrenak, bultzatu. Eta guztiek ere testuingurua kontuan izanda, eskola ez baita gela itxi bat, gizarteari begira egon behar duen espazio bat baizik. Eskolako ekintzek gizarteak gaiei erantzun behar dieten inguru hurbilaren eraldaketan —eta gizarte eraldaketan— eragin nahi bada.

Curriculumak irakasleena dela esatean, ikasleena ere badela gehitu daiteke, irakasleek eta ikasleek egin beharko luketela. Irakasleak ere prozesuan parte hartzea lortu behar da, eta prozesua luzea izango den heinean, oraindik badago aukera ikasleena parte-hartzea sustatzeko eta bideratzeko. Hori ere irakasle erdigunean jartzea izango litzateke, Hezkuntza Hitzarmenak nabarmentzen duen eran.

Curriculum berrian ez da edukien aldaketa handirik planteatzen, eduki horiek irakasteko eran baizik. Ikasteko moduak eta ikastetxetan lan egiteko moldeak irauli nahi dira, baina ortzimugan izan beharrekoa da edukien afera ere, euskal curriculumak bere osotasunean garatzeko xedea ahaztu gabe.

Aldaketa esanguratsua da eremuka lan egiteko planteamendua, batez ere Bigarren Hezkuntzan. Jakintza gai desberdinetako irakasleak elkarrekin lanean jarritz, ikasleak ikasgaiak banaka eta solte jaso ordez, edukiak loturak eginez eta errealitatera gehiago gerturatuz jasotzea dakar. Interesgarria litzateke nork bere diziplinarako orduak borrokatu beharrean diziplinarrean jardutea, beste begirada batekin. Ikasleena motibazioa bultzatzeko gakoa da, zalantzarik gabe. Eta badago horren beharra.

Ikastetxeei eta irakasleei ekitea dagokie —batzuk, jada, hasiak daude; beste batzuk hasteko—: kokatu, begirada aldatu, formatu eta ekin, administrazioetik luzatutako laguntzari helduz eta egokitzapenak behar baditu, eskatuz. 2019an idatzi genuen **Hik Hasiren** 239. zenbakian Jacint Verdaguer ikastetxeari buruzko erreportajea *Iraultza DBHn; eraldaketa posible da* izenburupean. Ea laster hemengo ikastetxeei buruz idazteko moduan garen.

“Ulertzen bagaitue ez baikaute sekulan ulertuko. Ulertuko ez gaituenean ulertuko gaitue. Ulertu behar bagaitue, beraz, gauden ezin ulertuak. Horrela beharbada, ezin ulertuz, azkenean ulertuko baikaute”

Telesforo Monzon

HILEKO IRUDIA





10 URTEAK OSPATUTA, INDARBERRITUTA JARRAITUKO DU HAZI HEZIK

Giro ederrean ospatu zen **HAZI HE-
Zi**ren 10. urteurreneko festa Adunan maiatzaren 29an. Haziera eta heziketa aldizkari bati dagokion eran, ume, heldu zein adinekoak, familia osoak, elkarrekin. Alaia Martinen agurreko bertsoen ondoren, seme-alabak, gu-rasoak eta aitona-amonak eskulanak egiten aritu ziren Alazne Ugartetxearen laguntzarekin; egunerokotasunean familietan sortzen diren gatazkei aurre egiteko pilulak hartzen Nerea Mendizabalen eskutik; eta Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna jarraitzen. Familia argazkiaren ondoren, Porrotxek eta Marimototsek oparitutako gereziendo bat landatu zuten denen artean, inguruan norberak margetutako harriak ipiniz. Gereziendoak denon koloretako ametsak irudikatu-ko ditu aurrerantzean eta **HAZI HEZI** aldizkariaren inguruaren ametsak egi bihurtzen jarrituko dute familiek elkarrekin.

Argazkia: Hazi Hezi
Adunan, 2022ko maiatzaren 29an

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

AKORDIOA LORTU DUTE SINDIKATUEK ETA EUSKO JAURLARITZAK

Hilabeteetako negoziazioen ostean sare publikorako akordioa lortu dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Steilas, LAB, CC00 eta UGT sindikatuek. Hiru gako nagusi ditu akordioak. Langileen kontratazioari dagokionez, Ingeleserako eta Gorputz Hezkuntzarako irakasle gehiago kontratatuko dituzte, eta baliabide gehiago jarriko dituzte Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleentzat eta berrikuntzarako. Ratioei dagokionez, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan gehienez 20 ikasle egongo dira ikasgela bakoitzean, Lehen Hezkuntzan 23 eta Batxilergoan 27. HHko lehen zikloan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan egungo ratioak mantenduko dira. Azkenik, akordioaren xedeetako bat irakasleen egonkortasuna bermatzea izanik, egiturazkoak ez diren lanpostuak egonkor bihurtuko dituztela iragarri dute. Hezkuntza Sailaren hitzetan “helburua ikastetxeen antolaketa eguneratzea eta sare publikoan estrategikotzat jotzen diren ardatzak sustatzea da”.

Bestalde, Eskolen antolaketa eta planifikazio dekretuaren zirriborroa publiko egin du hedabide batek eta bertan, sare kontzertatuan ere gutxieneko ratioak jaisteko proposamena egin dute. Gehienezko ratioetan ez da aldaketarik izango itunpeko sarean.

GREBARI EUTSIKO DIOTE NAFARROAKO HAUR ESKOLEK

Nafarroako Gobernuaren proposamena “oso eskasa” dela iritzita, grebarekin jarraitzea erabaki du Nafarroako 0-3 Plataformak. Hezkuntza Departamenduak % 14ko soldata igoera eskaini zien, baina ratioak aldatu gabe. Plataformak kontraproposamena egingo duela iragarri du. Izan ere, horiek dira grebara eraman dituen aldarrikapen nagusiak: soldata igoera eta ratioak jaitea. Hasieratik adierazi zuten Nafarroako Gobernuak bi aldarrikapen horiei erantzun arte greban jarraituko zutela.

UDAKO TOPAKETAK: IZEN-EMATEA ZABALIK

Uztailaren 4, 5 eta 6an izango dira **Hik Hasik** antolatutako Udako Topaketa Pedagogikoak, Donostian. 22. Udako Topaketetan Lehen Hezkuntzara datorren eraldaketari begirako ikastaro berezia eskainiko du **Hik Hasik**: *Lehen Hezkuntza eraldatzen*. 31 ikastaro izango dira guztira eta askotariko gaiak landuko dira. Izen-ematea eta informazio gehiago: www.hikhasi.eus helbidean.



PAUEKO AUZITEGIAN HELEGITEA JARRI DU SEASKAK



Iparraldeko Ikastolen Elkartek bide berri bati ekin dio ikasleek baxoa frogaren ahozko azterketa euskaraz egin ahal izan dezaten: Paueko auzitegi administrati-boan helegitea jarri du.

Jean-Michel Blanquer buru duen Hezkuntza Ministerioak Euskararen Era-kunde Publikoarekin (EEP) hitzarmena sinatu zuen azterketak euskaraz egitea ahalbidetzeko, baina Bordeleko erretoretzak bide hori oztopatu du. Seaskako kideek diotenez, euskarazko azterketak egitea ez da zaila, espezialiate guztietan daudelako euskarazko azterketak zuzentzeko gai diren irakasleak.

HAZIERA ETA HEZIKETA ALDIZKARIA

Hazi Hezi

Eskuratu
urtean 4 ale
20 eurotan

OSPATZEKO GARAIA DA!

10 urte

www.hikhasi.eus



Platon, Descartes, Aristoteles, Kant... Gizonezkoen izen propioak datozkigu gogora filosofia hitza entzutean. Baina filosofia pentsalari haiek ziotena baina askoz ere zabalagoa da. Eta zergatik ez, dibertigarriagoa ere bai. Jakinmin elkarteak filosofia saioak antolatzen ditu haurrak eta helduak filosofiara hurbiltzeko helburuz. Haur Filosofia saioak, Matthew Lipman, Haur Filosofiaren sortzaileak egindako ekarpenari jarraituz antolatzen dituzte. Lipmanek hezkuntza-praktika aldatu beharra ikusi zuen: pentsamenduaren alderdi kognitibotik harago joan eta memorizazio hutsa alboratzeko beharra ikusi zuen. Hark bezala, dogmatismotik urrundu eta pentsamendu kritikoa, autonomia, sortzailea eta arretatsua bultzatzea dute helburu Jakinmin elkarteak kideek. Joxe Mari Auzmendi Bekaren aipamen berezia jaso zuen Jakinmin elkarteak eta **Hik Hasik** antolatutako Udako Topaketetan ikastaro bat eskainiko dute.

GAIA: HAUR FILOSOFIA

Filosofia egiten ikasiz

Haur Filosofia metodologia bat edo filosofia ulertzeko modu bat da: filosofia ikastearen ordeztze, filosofia egitea da. Imanol Alvarez Jakinmin elkarteko presidente eta Bigarren Hezkuntzako irakasleak azaldu du zer den filosofia egitea: “Filosofia egitea ez da burutik pasatzen zaigun lehenengo gauza esatea. Filosofia egitearen atzean hausnarketa sakonagoa dago eta arau batzuk daude, jarraibide batzuk. Ez dago erantzun bakar bat eta argudiatzea edota pentsamendu kontzientea garatzea da helburua”. Horretarako, erabiltzen den tresna elkarriketa filosofikoa da. Abiapuntu modura pentsamendua kitzikatuko duen eta martxan jarriko duen pizgarri bat erabiltzen da Haur Filosofia saioetan. Pizgarri hori, Haur Filosofiarako espreski prestatutako materiala izan liteke edo beste edozein: ipuin bat, film bat, kantu bat, iragarki bat, galdera bat... Gai zehatz bati buruz pentsatzera edo hausnartzera eramaten gaitu eta hortik abiatuta, Haur Filosofian aditua den pertsona batek elkarriketa filosofikoa gidatzen du. Helburua galderen bitartez pentsamenduan sakontzen laguntzea da, eta ez erantzunak ematea.

“Pizgarria bota ondoren, galderak planteatzen dira. Guk planteatu ditzakegu, edo materialetan daudenak erabili, baina Lipmanek proposatzen zuena ere egin dezakegu: taldeak berak sor ditzake galderak. Niri azken hori interesgarriagoa iruditzen zait, galderak sortzeko prozesuan kritikotasuna are gehiago lantzen delako. Galderek ezaugarri jakin batzuk izan behar dituzte eta hausnarketarako lagungarriak izan behar dira. Ikasleei galdera filosofikoak zer diren eta galdera onak nola sortzen diren ere azaltzen diegu”, dio Alvarezk.

Hezkuntzan lekua duen metodologia da eta irakasleentzako prestakuntza saioak eskaintzen ditu Jakinmin elkarteak. Etapa guztietan erabili daitekeen metodologia da. Baina zergatik du halako garrantzia filosofiak bizitzan eta hezkuntzan? Hauxe Alvarezren erantzuna: “Pentsamendu filosofikoa transbertsala da, gai guztiak hartzen ditu. Normalean filosofiaren gai nagusiak justizia, ongia eta gaizkia, estetika, maitasuna, heriotza, errealitatea, egia... izaten dira, eta horiek daude gainerrako gaien erroan. Kontua ez da zeri buruz pentsatzen

dugun, baizik eta nola pentsatzen dugun. Argudiaketa lantzea, pentsamendu kontzientea lantzea, adibideak ematea, pentsamendua nondik datorren eta nora doan edo zer ondorioztatzen den hausnartzea... Etengabe egin beharko genukeen ariketa da, bai geure buruarekin eta baita besteekin ere elkarrizketa sakonak eta emankorrrak izateko modu bakarra delako. Ez nuke esango filosofiaren gai tradizional guztiak bizitzan eta hezkuntzan ezinbestekoak direnik, baina hausnarketa bideratzen duen pentsamendu filosofikoa bai, hori ezinbestekoa da”.

Pentsamendu filosofikoa lehenbailehen lantzen hastea komeni dela dio Alvarezek. Islandian, esaterako, hiru urteko haurrekin ere lantzen dituzte Haur Filosofia saioak: “3 urtetik aurrera Haur Filosofia saioak egiteko aukera dago, badago materiala eta badaude moduak”.

Baina nola lantzen da pentsamendurako gaitasuna ume txikiekin? Alvarezek adibide praktikoa jarri du: “Oso argigarria izan zen 4 urteko haurrekin izandako esperientzia bat. Askatasun absolutuaren jolasa planteatu nuen: jolasean hasi eta nahi zutena egin zezaketen. Handik gutxira bat kexaka etorri zen jo egin ziotelako, beste bat jostailua kendu ziotelako... Nik hura askatasun absoluturen jolasa zela erantzun nien eta ezer ulertu gabe begiratu ninduten. Jolasa neurrigabea izaten hasi zenean eten egin nuen. Ordura arte, ordea, askatasun absolutuaren esperientzia bizi izan zuten eta esperientziatik horretatik abiatuta, askatasunari eta araei buruz hausnartzen aritu ginen. Modu horretan hiru filosofo kontraktualistek –Hobbes, Locke eta Rousseau– hausnartzen zuten gai berari buruz hausnartu dezakezu 4 urteko haurrekin: askatasuna, estatuaren beharra, legeak, arauak...”.

Pentsalari klasikoak baino gehiago

Filosofia ikasgaia eta filosofia bera autore jakin batzuekin lotzeko joera dugu, baina hori aldatzen ari dela eta irakasleek zentzu horretan autokritika egin behar dutela uste du Alvarezek: “Neurri batean Filosofiako irakasleen errua izan da filosofiaren ikuskera hori zabaltzea. Urte luzez autoreei soilik erreparatu diegu, baina ikas-

leentzat filosofia interesgarri egiten ez badakigu, zerbait gaizki egiten ari gara. Filosofia bizitza da, bizitzari buruz hausnartzea. Eta zubi hori eraikitzen asmatzen ez badugu, gaizki ari gara”. Hain zuen ere zubi hori eraikitzen saiatzen da Haur Filosofia: “Filosofia erreallitatera ekartzen eta maila intelektual elitista horretatik apur bat jaisten saiatzen gara, baina batzuetan erresistentziak topatzen ditugu, jende askok filosofiaren irudi tradizionalari lotuta filosofia ez dela edonorentzat egina pentsatzen baitu”.

Hala ere, filosofo klasikoek ekarpena baztertzea akatsa izango litzatekeela uste du Alvarezek: “Nik ikasgelan elkarrizketa filosofikoak eta autoreen lana tartekatzen ditut. Ikasleek filosofatzen ez badute, ikasgaia astuna da eta autoreak ikasten ez badituzte agian pobre gelditzen da, bestearen pentsamenduak norberaren pentsamendua aberasten baitu. Bi alderdiak uztartzea garrantzitsua da”.

Badator erreforma

Espainiako Hezkuntza Ministerioak curriculumari buruz planteatu dituen dekretu proposamenek filosofia lantzeko espazio murrizta utzi dutela dio Alvarezek: “Erreforma berri honekin filosofia ez da desagertzen, baina ez da bermatzen. Derrigorrezko orduak desagertu dira eta pilota autonomia erkidego bakoitzaren teiltuan utzi dute. Espainiako Gobernuak minimoak eskaintzen dizkio pentsamendu filosofikoari eta erkidego bakoitzak hori garatzeko aukera du. Euskal Autonomia Erkidegoan jarrera positiboa izan dela uste dut, baina hautazkoek ez dute bermatzen pentsamenduaren lanketa estruktural bat. DBHko 1. mailan Balio etikoak ize-neko ikasgaia egongo da eta derrigorrezkoa da, baina DBHko 2. eta 3. mailako Pentsamendu autonomo eta kritikoaren garapena zein 4. mailako Filosofia ikasgaiak hautazkoak izango dira. Erreforma berri honetan Haur Hezkuntzan eta, batez ere, Lehen Hezkuntzan Pentsamendu filosofikoa sar dezaten ere saiatzen ari gara”.

Hautazko ikasgaia izanik, ikasle asko hortik kanpo geldituko diren kezka du Alvarezek. Eta filosofia saioak


“Urte luzez autoreei soilik erreparatu diegu, baina ikasleentzat filosofia interesgarri egiten ez badakigu, zerbait gaizki egiten ari gara”

Imanol Alvarez, Jakinmin elkarteko presidentea

Haur Filosofia lantzeko euskarazko materialak

11 kutixi filosofiko

Oi(h)artzun filosofikoa elkarrekin argitaratutako materiala da. 11 testu, 11 ilustrazio eta 11 galdera biltzen dituen kaxa filosofikoa, haurrentzat eta gaztetxoentzat euskaraz sortua. Hainbat idazle eta ilustratzailek 11 gairi buruz hitz egiteko gonbitea egiten digute: filosofia, egia eta pentsamendua, errealitatea(k), gizakia, bizitza eta heriotza, kultura eta kulturak, ongia eta gaizkia, elkarbizitza, gizakia eta natura, emozioak, etika eta politika.



Wonder ponder

Euskarara itzuli ditu bi ale Tarttalo argitaletxeak: “Mundu krudela” eta “Ni, pertsona”. Filosofia lantzeko kutxa batzuk dira eta gai bakoitza lantzeko materiala eskaintzen dute. Irudien bidez mamitsua edo gatazkatsua den gai bat azaltzen dute eta horri buruzko galderak planteatzen dituzte.

beharrezkoak dira pentsamendu konplexua, kritikotasuna eta sormena lantzeko: “Alderdi garrantzitsuak lantzen dira: egia bakarra ez dagoen espazioa da, hausnarketa eta elkarriketa kooperatiboa lantzen ditu... Denok uste dugu hori guztia lantzea oso garrantzitsua dela, baina, hala ere, hautazko ikasgaia baino ez da”.

Gainera, badira Haur Filosofiak eta pentsamendu kritikoa eta konplexua lantzeak ikasleek errendimendu akademikoan onurak ekartzen dituela dioten ikerketak. Alvarez: “Ikerketek diote haurrek pentsamendu kritikoa eta argudiatzeko gaitasuna garatzen dutela eta errendimendu akademikoa hobetu egiten dela beste arlo guztietan ere. Logikoa da, memorizazio hutsetik ulermenara pasatzen baitira ikasleak”.

Asko dira Haur Filosofiak dakartzan onurak: “Gaitasun kritikoa eta argudiatzeko gaitasuna izugarri hazten dira. Elkarbizitzarako gaitasuna ere handitzen da, besteen iritzia errespetatzen ikasten dutelako. Urteek aurrera egin ahala garapen nabaria ikusten da ikasleengan”. Horrekin lotutako anekdota kontatu du Alvarezk: “Lan egiten dudan institutuan, Batxilergoko 1. mailako ikasleek talde feminista zuten eta taldeko bilerak egiteko modua aldatzea erabaki zuten beti galderekin hasia hobetsiz.

Horrelakoetan ikusten da funtzionatzeko modu berria barneratzen dutela. Filosofia eta pentsamendu kritikoa dogmatismoaren kontrako botika dira eta galderekin hasia aurrerapauso interesgarria da. Gainera, modu horretan, edonork parte hartzeko eta iritzia emateko aukera zabaltzen duzu. Egia bakarrik ez dagoela adierazten duzu. Gutxitan gertatzen da, baina niri gertatu izan zait klase batzuetan, nolabait, desagertzea. Desagertzen zarenean protagonismo guztia ikasleek hartzen dute. Zaila da horra heltzea baina une hori magikoa izaten da”.

Hainbat esperientzia egin ditu gaur arte Jakinmin elkarrekin: Oiartzunen, Errearterian, Donostian, Durangon eta Gasteizen egin dituzte saioak haur zein helduekin eta orain arteko emaitzak ikusita, lan horretan jarraituko dute aurrerantzean ere. Izan ere, oro har, hausnarketarako espazioen eskasia dago eta filosofia saioak garapen integralerako eta gizarte kritikoagoa lortzeko tresna paregabea dira.

Nahi duen orok gaia sakontzeko aukera izango du Hik Hasik antolatutako Udako Topaketetan *Hausnarketa lantzen elkarriketa kooperatiboaren bidez* ikastaroa eskainiko baitute Imanol Alvarezk eta Garikoitz Moyak. Izen-ematea: www.hikhasi.eus atarian.

Askatasunez hitz egiteko gunea

Ez da Aintzinako Grezia eta ez da agora bat. Ez, behintzat, filosofo klasikoak hizketan irudikatzen ditugun plaza horietako bat. Hau Erretereria da eta Filosofiaren Plaza ez dago harriz egina, ezta aire zabalean ere. Lekuona Fabrikako gela batean biltzen dira filosofo txikiak. Garai batean gailetak egiten zituzten Lekuona Fabrikan. Orain, berriz, ideiek, pentsamenduek eta argudioek hartu dute haien lekua.

Xabi Salaberria eta Eva Domingo Jakinmin elkarteko kideek antolatu dituzte Erretereriako Haur Filosofia saioak eta eurak aritzen dira gidari lanetan, baina herriko sortzaileek protagonismo berezia dute Lekuona Fabrikako saioetan.

Oiartzunen du jatorria Erretereriako esperientziak. Lauz-pabost urte dira Oiartzunen haurrekin filosofia saioak egiten hasi zirela. Pizgarri bat izaten da saio bakoitzaren hasieran eta Oiartzunen herriko sortzaileak hasi ziren pizgarri hori jartzen. Baina Erretereriakoak bestelakoak dira. Izan ere, herriko sortzaileekin elkarlanean egiten dituzte saioak. Oiartzunen sortzaileek pizgarria jartzen zuten eta gero gai bati buruzko ohiko filosofia saioa egiten zuten. Hemen, ordea, helburua sormenari buruz filosofatzea da. Hala adierazi du Salaberriak: “Oiartzunen pizgarria maitasunari buruzko testu edo irudi bat izan zitekeen, maitasunari buruz filosofatzeko. Hemen, ordea, sormena bera da filosofatzeko gaia eta, batez ere, sortzen ari garenean pentsamenduan gertatzen den prozesuari jartzen diogu arreta”.

Ostiraletan biltzen dira filosofo txikiak Lekuona Fabrikako Filosofiaren plazan. Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako hamasei ikaslek hartzen dute parte egitasmoan eta ordu eta erdiko saioak egiten dituzte. Apirilean hasi ziren eta ekainean amaituko dute egitasmoa. Zortzi saio izango dira guztira eta helburu nagusia haurrekin sormena lantzea dela dio Domingok: “Gaur

egun asko entzuten da ume sortzaileak nahi ditugula. Ume kritikoak, ekintzaileak eta sortzaileak nahi ditugu. Hori oso polita da, baina nola lortuko dugu? Nola laguntzen diegu horretan eta nola errespetatzen ditugu euren garapena, beharrak eta interesak? Ikastetxe guztietan, teorian behintzat, hori bultzatzen dute baina errealitatean, umeek alderdi horiek lantzeko aukera handirik ez dutela ikusten dugu. Eskolan zaila da, eskolaz kanpo jarduera mordoa izaten dituzte... Eta sormenak lasaitasuna eskatzen du, denbora. Uste dugu interesgarria dela haurrak sortzaileekin harremanetan jartzea eta bertatik bertara ikustea bizitza sormenari eskaintzen diotenek nola egiten duten lan, nola bizi dituzten sormen prozesuaren etapak... Ez da soilik ekoizpena aurkeztea baizik eta horren atzean zer dagoen eta horra nola iritsi diren azaltzea. Horrek haurren grina piztuko duela espero dugu, eta hausnarketa bultzatuko duela: zer gustatzen zaien sortzea, zer egin behar duten sortzeko, zer gertatzen den haien pentsamenduan sortzen dutenean... Eskolan sormena plastikarekin lotzeko joera dago, baina hori baino askoz ere gehiago da eta bizitzako esparru guztietan erabili daiteke. Kasu batzuetan, eskolan idazlanak egiteko aukera ere izaten dute. Edonola ere, niri iruditzen zait geroz eta denbora gutxiago eskaintzen zaiola sormenari ikasgeletan”.

“Pentsamendu kritikoa –Haur Filosofiarekin berez lantzen dena– eta sormena uztartzen dira egitasmo honetan. Pentsamendu kritikotik begiratuta, sormen

“Ume kritikoak, ekintzaileak eta sortzaileak nahi ditugu. Hori oso polita da, baina nola lortuko dugu?”

Eva Domingo, Jakinmin elkarteko kidea

GAIA: HAUR FILOSOFIA



prozesuan zer gertatzen den aztertzea da gakoa. Herriko sortzaileak hainbat diziplinatakoak dira, pizgarri horiek askotarikoak dira eta haurrak prozesu horietan lanean jartzen ditugu: artista marrazkilaria denean, esaterako, haurrek ere marraztu egiten dute, eta aktoreren bat datorrenean antzeztu egiten dute. Helburua haiek ere prozesu hori sentitzea eta gero horri buruz hitz egitea da”, dio Salaberriak.

Haur Filosofia saioak gidatzeko prestakuntza behar da, metodologia bat dago eta nahitaez errespetatu behar diren baldintza batzuk daude. Eta, kasu honetan, sortzaileek ere prestakuntza behar izan dute. “Saioak guk gidatzen ditugu, baina bertan egoten direnez garrantzitsua iruditut zitzaien formazioa jasotzea, prestatzen duten pizgarri horrek duen zentzua ulertzeko. Eta elkarrizketan uneren batean parte hartu nahi balute, badakite baldintzak zein diren”, azaldu du Salaberriak. “Oinarritzakoa da jakitea haurrei ezin diegula erantzunik

eman, ezin diegula esan sormena zer den, adibidez”, dio Domingok, eta ideia hori zehaztu du Salaberriak: “Adibidez, aktore batek antzerkiari buruzko erantzun ugari izango ditu, baina helburua haurrek hausnartzea da”.

Egunero erabiltzeko moduko metodologia

Salaberriak argi du: “Egunerokotasunera eraman beharko genukeen metodologia da. Ikasgeletan, gainera, egunero gertatzen dira pizgarri izan litezkeen gauzak: pizgarria jolasgaraiko liskarren bat izan liteke, norbaiti bururatu zaion ideiarene bat... Une horiek aprobetxatu behar dira. Arazoa, ordea, denbora falta izaten da maiz”.

Matthew Lipmanek sortu zuen metodologia hau ikasleak unibertsitatara pentsatzeko gaitasunik gabe iristen zirela ikusita. Pentsamendua garatzeko tresna da eta edozein arlotarako balio du. Gaur egun, kontzientzia kritikoa galtzen ari garela ere esaten da, eta horri

eusteak berebiziko garrantzia duela uste du Domingok: “Gai izan behar dugu geure kabuz pentsatzeko, munduan mugitzen jakiteko, malguak izateko... Errealitateak etengabe aldatzen ari dira eta gaitasun horiek beharrezkoak dira. Haurrei esan genien giharrak lantzen ditugun bezala landu behar dugula pentsamendua. Izan ere, denok gaude kontzientziatuta ariketa fisikoarekin baina pentsamenduaren lanketarekin ez”.

Euskarazko material gutxi

Euskarazko materialen eskasia azpimarratu dute Salaberriak eta Domingok: “Oiartzunen *11 kutixi filosofiko* izeneko lana argitaratu genuen eta pixkanaka material berriak sortzeko asmoa dugu. Badira pizgarri gisa erabili daitezkeen materialak (ipuinak, artelanak, kantuak...) baina euskaraz espreski sortuak izan direnak oso gutxi dira. Beste hizkuntza batzuetan egindako materialetatik tiraka aritzen gara askotan. Esate baterako, Kataluniako *Noria* proiektuko materialak erabiltzen ditugu”.

Lipmanek idatzitako eleberriak izan ziren Haur Filo-



sofia lantzeko berariaz sortutako lehen materiala. Adin bakoitzerako gai batzuk lantzen dituzte eleberriek baina, esan daiteke, modu intelektualean planteatzen dituela gaiak, eta AEB Amerikako Estatu Batuetan 60ko hamarkadan idatziak direnez, egungo egoera eta testuingurua ez dute kontuan hartzen. Salaberria: “Kataluniarrek hainbat material eta pizgarri erabiltzen dituzte. Eta guk ere hortik jo dugu filosofia ludikoan kokatzen baikara Lipmanek sortutako Haur Filosofia horren barruan egon arren”. Izan ere, Lipmanek aipatutako helburuak bere horretan mantentzen dira gaur egun: “Baina helburu horiek lortzeko bestelako moduak erabiltzen ditugu. Errenteriako egitasmoarekin sormenari leku gehiago eskaini nahi diogu, baina azken batean pentsamendu kritikoa, sortzailea eta arretatsua bultzatu nahi ditugu”.

Aurrera begira

Etorkizunera begira, ez dute baztertzen ikastetxeek Haur Filosofia saioetan parte hartzeko aukera. Errenteriako egitasmoa prestatzen ari zirenean, irakasle talde batek ere, prestakuntza saioak jaso zituen sortzaileen moduan. “Ikastetxeen parte-hartzea guretzat ideala izango litzateke, gutxi baikara. Dena eskolaz kanpo egiten dugu eta metodologia hedatzeko aparta izango litzateke eskoletara iristea. Irakasleak prestatuta eta inplikaturta egongo balira, elkarriketa filosofikoaren praktika zabaltzea askoz errazagoa izango litzateke. Katalunian, adibidez, arlo horretan askoz aurreratuago daude eta guretzat erreferentzia dira. 3 urtetik aurrerako umeekin aritzen dira hainbat eskolatan eta edozein ikasgaitan erabiltzen dute metodologia hau”, dio Domingok.

Saioei buruzko balorazio ona egiten dute biek ala biek. Domingo: “Haur batek zioen bere arazoa dela ideia pila bat dituela baina gero ez dakiela horiek nola planteatu, ekoizpena nola egin. Hori jende askori gertatzen zaio; ideia pila bat izatea, dispersioa izatea... Ideiak zehaztu egin behar dira eta ondoren sortu. Baina dagoeneko haur horrek hausnarketa hori egin du eta hori oso polita da. Umeek asko ematen dute”.

Aurrerantzean proiektua egonkortzea da euren asmoa. Udazkenean saioekin jarraitu nahiko lukete, izan ere haurrak nola ahalduz diren prozesuan zehar ikusten da. Beste herri batzuetara zabaltzeko aukera ere zabalik da. Probatzen duenak errepikatu nahi izaten du, gainera, eta saioetan magia modukoa sortzen dela dio Domingok: “Esaten dute gustura egoten direla askatasunez hitz egiteko aukera dutelako”.

**Horrelako
itzulpenik jaso
nahi ez baduzu...**

**kontratatu
Elhuyarren
itzulpen-zerbitzua**

Europar Batasuneko
hizkuntza ofizial
guztien arteko
itzulpenak

itzulpenak.elhuyar.eus

elhuyar
ezagutuz aldatzea

KAFE HUTSA

1.20 €

CAFÉ VACÍO





Argazkiak: Monika del Valle / Foku

“Curriculumak irakasleek
egin behar dute,
ez politikariek”

ELKARRIZKETA:

BEGOÑA PEDROSA

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILBUORDEA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburorde da Begoña Pedrosa areatzarra 2020az geroztik eta, haren ustez, hezkuntza momentu liluragarrian dagoen unean egokitu zaio esparru horren kudeaketa. Unibertsitateko eta ikastetxeetako berrikuntza proiektuetan aditua da eta irakasle-ikertzaile gisa aritu zen aurretik Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. 2014tik 2020ra fakultate horretako dekanoa izan zen. Egindako

ibilbidean erakutsi du emakume nekaezina eta konprometitua dela eta irmo eutsi dio berrikuntza eta eraldaketa geletara eramateko erronkari. Datorren ikasturtetik aurrera ezarriko den curriculum berria prestatzen aritu da buru-belarri irakasleekin, hezkuntzako adituekin eta arituekin. Lasaitasunez eta behar den denbora hartuz, ikastetxeak eta irakasleak eraldaketako protagonista bihurtzea nahi du Pedrosak, Hezkuntza Sailaren laguntza eta bultzadarekin.



Irailean ezarriko da curriculum berria Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxeetan. Zer du berritik eta zer zaharretik?

Beti azpimarratzen dut hemen lehenetik ere hasita geundela curriculumari aldaketak egiten, eta Heziberrik ere bide bat finkatu zuen konpetentzietan oinarritzen den eredu lan egiteko. Orain, LOMLOErekin arkitektura curricular berria etorri da eta horrek dakartzan aldaketa batzuek konpetentzietan oinarritzen den markoa zertan datzan ulertzen laguntzen dute. Ikastetxe batzuek aurrerapausoak emanda zeuzkatela esango nuke eta beste batzuk hasiberriak edo hasiteko daude. Erkidego bakoitzak bere erabakiak hartu ditu, hemen eremuka lan egitea erabaki dugu, urte batzuen buruan denok horrela lan egitea. Beraz, hortik abiatuko gara.

Zein dira curriculum berriak ekarriko dituen aldaketa esanguratsuenak?

Konpetentzien bidezko ikaskuntzan jauzi kualitatiboa ekarriko du. Pandemiak hainbat gauza utzi ditu agerian eta horien artean, adibidez, gure curriculum oso lodia dela. Curriculum arindu egin behar da, ezin da izan edukiz betetako tresna edo zerrenda bat. Garatu behar ditugun edukiak zein diren hautatze-

ko irizpideak behar ditugu, edukiak inportanteak baitira. Eta eduki horiez gain, curriculumaren poltsa handi horretan sartu behar dira digitalizazioa, hezkidetza, hizkuntza normal-kuntza, ongizate emozionala eta abar. Arlo horiek ezin dira izan momentu jakinetan soilik egiten diren jarduera osagarri edo periferiko batzuk. Gure edukietan eta proiektuetan txertatu eta integratu behar diren proposamenak bilakatu behar dira.

Ondoren, curriculum hori ikaskuntza prozesu esanguratsu batean nola sartu behar den erabaki behar da eta hori da esanguratsuenak: zer daukagu, zer hautatzen dugu eta zergatik, eta nola antolatuko dugu gure ikastetxean eta gelan? Pauso hori oso ondo argudiatuz eta irizpide argiekin egin behar da. Besteak beste, proiektua lan egitea, koirakaskuntza aplikatzea eta ebaluazio hezigarria eta partekatua ezartzea eskatzen du.

Horiek dira curriculum berriaren ardatzak eta hortik dator aldaketarik esanguratsuenak: nola egiten dugun lan ikastetxeetan. Hau da, eremuka, proiektua edo arloka, eta ez ikasgaika. Lehen Hezkuntzan proiektu globalizatzaileekin lan egitea ekarriko du eta, batik bat, Bigarren Hezkuntzan ekarriko du iraultza; uste dut hor daukagula erronka. Jakintza gai

desberdinetatik datozen irakasleak elkarrekin lanean jartzea da gakoa eta uste dut horrek bulkada bat eman-go diola benetan ikaslearen garapenari. Diziplina desberdinak ikaste prozesuaren zerbitzura jarriko dira. Ikasleari erronka bat planteatuko zaio eta erronka horren bitartez bere ikasketa prozesua garatzen joango da. Esate baterako, Natur Zientziek bere hizkuntza propioa daukate eta ikasleek gai horri loturiko edukiak azaltzen ikasi behar dute. Orduan, azalpen testu bat landu daiteke Natur Zientziak egiten ditugun bitartean eta, gainera, ikasleak, egiten duen hori defendatzen eta argudiatzen ikasiko du. Horretarako, Natur Zientzien mintegian lanketa bat egin behar dute irakasleek eta hizkuntzaren adituen laguntza izan beharko dute ikastetxean bertan. Hori da eman behar dugun salto kualitatiboa. Modu horretara, ezagutza eta eduki desberdinekin elikatuz lantzen da hizkuntza.

Besteak beste, ikastetxetako antolaketa eta ordutegiak aldatzea eta malgutzea dakar horrek, ezta?

Horrek planifikazio on bat eskatzen du eta, horretarako, irakasleek beraien artean antolatu behar dute. Bigarren Hezkuntzan, adibidez, ordutegia erabat aldatu beharko da

diziplinarteko proiektu bat garatzeko, eremu horretan egon baitaitezke pare bat irakasle bi edo hiru ordu elkarrekin lanean. Horrela sakonagoa bilakatzen da ikaste prozesua. Oso aberasgarria da Hizkuntzako irakasle bat Gizarte Zientzietako irakasle batekin elkarlanean aritzea eta lantzen ari diren gaia ikasleek nola argudiatzen duten ikustea.

Hori da planteamendu berriak bultzatzen edo proposatzen duena, ezagutzak diziplinarteko proiektu batera ekartzea. Eremuka ikasiz da ikaslea erdigunean jartzen da eta ikasleek koerantzukizunez lan egiten dute.

Gakoa ez da ikasgai bakoitzari ezartzen zaion ordu kopurua, baizik eta ikaste prozesuari ematen zaion enfokea. Gure ikasleak, haurrak eta gazteak, oso arin mugitzen dira mundu honetan. Guk pertsonak hezi eta etorkizunerako prestatu behar ditugu. Diziplina bakoitzeko ezagutza oso inportantea da, baina ez baldin badugu testuinguru jakin batzuetan kokatzen, jomuga edo zentzu batekin, ez baldin badugu ikaslea horretara gonbidatzen, uste dut eskolatze prozesuari mami guztia ez ateratzeko arriskua daukagula. Ikasleek dakitenaz baliatu behar du hezitzaileak, daukaten grina eta motibazioa aprobetxatu, planteatzen ditugun proiektuetara, kasuetara edo egoeretara ekarri eta etekina atera behar diegu. Ikasleak daukan motibazioetik abiatuz gero, emaitzak erabat desberdinak dira.

Aditu batzuek egoera horietan zalantzan jartzen dute ikaslearen esfortzua, baina esfortzu berdinerdina egin behar dute motibazioa duten gaietan ere. Zentzu horretan zorroztasunez jokatu behar dugu ikastetxeetan. Eskakizuna berdina izan daiteke, baina beste modu batera enfokaturaz.

Curriculum berrian pisu esanguratsua hartuko du ongizate emozionalak. Elementu berria da. Horretarako beharra ikusi duzue?

Gure marko berriko beste aldaketetako bat da eta erdigunera ekarri dugu. Sistema osora hedatu nahi dugu, ongizate emozionala esparru guztietan zaindu behar bada.

Ongizarte emozionala berez dator ikaste prozesua beste modu batean enfokatzen badugu. Ez da gauza bera DBHko 1. mailan proiektu bat egitea edo 9-10 ikasgai desberdin edukitzea. Ikaslearen egoteko modua aldatu egiten du.

Irakasleek tresna berriak behar dituzte ongizate emozionala zaintzeko. Aurreko ikasturtetik formazioa eskaintzen ari gara eta jarraituko dugu. Irakasleek estrategiak behar dituzte ikasleen begiradan aztarnak ikusteko eta identifikatzeko. Ez dira adituak izango, baina gela batean gertatzen ari dena beste modu batera irakurtzeko gai izango dira.

Garapen akademikoa bermatzeaz gain, garapen emozionala ere bermatu egin behar zaie ikasleei.

Lan egiteko modu honek kultura berri bat eskatzen du, irakaslearen begirada aldatzea. Eta begirada aldatzeko formazioa ezinbestekoa da. Zer-nolako formazioa antolatu edo proposatu duzue?

Hurrengo ikasturteetan etorriko den aldaketarik esanguratsuena formazio ereduaren baitan etorriko da. Formazioa ikastetxeetatik eta klaustroen eta berdinkideen arteko kolaboraziotik bideratuko da. Agian orain arteko formazio ereduak indibidualista izan da; irakasle bakoitzak bere prestakuntza egin izan du bere formazioa aberasteko eta hori oso inportantea da, alegia, konpetentzia gehiago jasotzea irakasle modura, norberak identifikatzen dituen hutsuneak eta hobetzeko alderdiak lantzeko. Baina horrez gain, ikastetxea kontuan izan behar dugu eta baita hezkuntza proiektua eta testuingurua ere. Eta hor erabakiak partekatuak izan behar dira.

Hortaz, ikastetxe bakoitzean berrikuntzan edo eraldaketa prozesuetan erreferentzia izango den pertsona bat —edo bi, ikastetxearen tamainaren arabera— egotea gustatuko litzaiguke. Pertsona horrek berrikuntzarako grina eduki beharko luke, formazio guztietan parte hartzeko ardura hartuko luke, eraldaketaren lidergoa eramatekoa eta gero klaustroarekin zentzuzko erabakiak hartuko lirateke. Hezkuntzan pertsonekin egiten

“Curriculuma arindu egin behar da”

“Curriculum berriarekin, eremuka lan eginez, ezagutzak diziplinarteko proiektuetara ekartzea lortuko da”

“Diziplina bakoitzeko ezagutza inportantea da, baina ez badugu testuinguruan kokatzen eta zentzua ematen, eskolatze prozesuari mami guztia ez ateratzeko arriskua dago”

“Garapen akademikoaz gain, garapen emozionala ere bermatu behar zaie ikasleei”

“Erronkarik handiena ikastetxe bakoitzak eraldaketa prozesua bere gain hartzea da”

dugu lan eta erabaki potoloenak eta eraldaketarik inportanteenak behetik datozenak dira. Ikastetxeetan irakasleek eurek hartzen dituzten erabakiak konbentzimenduz eta behin ikasleen beharrak zein diren identifikatuta.

Etapaz guztietarako formazio trinkoa egingo dugu ekainaren azken astean eta datorren ikasturtean jarraituko dugu.

Irakasleek eta ikastetxeek protagonismo handiagoa izango dutela dirudi.

Erronkarik handiena ikastetxe bakoitzak eraldaketa prozesua bere gain hartzea da. Ingelesean badago niri asko gustatzen zaidan hitz bat: *appropriateness*. Hau da, zeuk egin behar duzun hori zeureganatzea horretan sinesten duzulako eta benetan egin nahi duzulako, ez inposatzen delako. Ikasle batek gauzak beste modu batera jasotzeko daukan beharrezana ez badugu sentitzen hezitzaileok, nekez lortuko dugu benetan zerbait esanguratsua egitea. Irakasleak premia hori ikusi eta klaustrokideekin partekatuta behar du. Berdinkideen arteko eraldaketan eta formazio ereduaren sinesten dut. Eta ez da nik sinesten dudalako soilik; egiaztatuta dago aspalditik hori dela benetan funtzionatzen duena.

Irakasleek eta ikastetxeek egin behar dute berrikuntza eta eraldaketa eta administrazioetik bultzatu egin behar ditugu. Lehen minututik oso argi eduki dugun elementu hori: curriculum irakasleek egin behar dute. Curriculum ez da politikariek egiten duten zerbait edo Legebiltzarrean erabakitzen den zerbait. Adituek eta arituek hartu behar dituzte erabakiak. Aholkularien, beste adituen, administrazioaren... laguntza eta babesa behar dute, jakina, eta baita lanabes berriak ere. Baina erabakiak irakasleek hartu behar dituzte, beraiek dakite inork baino hobeto zerk funtzionatzen duen eta zerk sortzen dituen arazoak. Beraiek dakite inork baino hobeto pandemiak zer erakutsi digun, egunerokoan bizi izan dutelako.

Horregatik, curriculumaren lanke-tarekin hasi ginenean talde eragile iraunkor bat sortu genuen guztia planifikatzeko eta bideratzeko. Ikas-

tetxeekin harremanetan egon gara une desberdinetan eta saio parte-hartzaile batzuk egin ditugu lurralde guztietako irakasleekin curriculumaren izaera berriak zer ezaugarri izan behar dituen, zergatik, zergatik ez eta abar definitzeko.

Gure berrikuntza zentroetan ere hausnarketa propioa egin behar izan da: zer den egin behar duguna eta zer den hobetu behar duguna. Une honetan, beraiek ari dira proposamen berria lantzen datorren ikasturteari begira. Hausnarketa gako horren fokupean egin dugu: barrutik egin behar da aldaketa. Administrazioetik testuinguruak sortu behar ditugu eta aholkulariak horren zerbitzura jarri behar ditugu, lanabes berriak eta formazioa eskainiz. Inportantea da ikastetxean bertan eraldaketari erantzuteko egitura minimo bat egotea. Ikastetxe batzuetan argi dute, beste batzuetan gure laguntza eta babesa behar dute hori guztia antolatzeko eta diseinatzeko. Momentu liluragarria da hezkuntzarako.

Saretzea ere garrantzitsua da, bai ikastetxe barruan eta baita ikastetxeen artean ere, pedagogiaz, proiektuez, estrategiez eta ebaluazio ereduez hitz egiteko. Garrantzitsua da gai horiek erdigunera ekartzea eta horretaz hitz egitea. Formazio eredu berriaren beste hanka bat saretzea da. Momentu honetan eraldaketa proiektu bat daukagu martxan konplexutasun handiko 60 ikastetxerekin eta euren sare propioa osatu dute, dinamizazio eta talde eragile indartsu batekin. Egiteko modu horrek benetan ahaldundutze bat ekarriko du gure ikastetxeetara.

Gure erkidegoko Hezkuntza Fakultateak ere inplikatu ditugu eta etorkizunean elkarrekin aritzeko beste motibazio bat ikusten dut. Hasierako formazioak ere bere iraultza propioa behar du modu koherentean funtzionatu nahi badugu. Hasierako formazioan proposatzen diren curriculumak eta gure ikastetxeetan egiten denak koherenteak izan behar dute, bat etorri behar dute, eta komunikazio hori blindatu egin behar dugu etorkizunera begira. Bat egite hori izan da beste elementu inportante bat.

Frogatuta dago Bigarren Hezkuntzako irakasleen hasierako formazio pedagogikoa ez dela nahikoa. Aldaketarik etorriko da arlo horretan?

Haur eta Lehen Hezkuntzako graduetan lau urtetan zehar pedagogikoki begirada bat garatzeko aukera eta denbora dago. Bigarren Hezkuntzako irakasleek, ordea, euren diziplinako gradua egin ostean, ikasturte bateko masterra egiten dute irakasle gisa aritzeko, eta ez dago denbora nahikorik benetan begirada aldatzeko. Eta hezitzaile batek begirada behar duenez, administrazioetik arreta berezia jartzen ari gara Bigarren Hezkuntzako esparruan. Formazio bereizgarriak egiten ari gara, besteak beste, emozionalitatea lantzeko.

Curriculum berriarekin Bigarren Hezkuntzan eremuka lan egiteko aukera irekitzen da eta horrek trantsizioen lanketa egitea eskatzen du. Alegia, Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara pasatzerakoan harrera moduko bat egon behar da, benetan esanguratsua izango den harrera. Ikasleak bat-batean erreferente batekin egotetik zortzi-bederatzi erreferente desberdin edukitzera pasatzen dira eta salto hori gogorra izaten da batzuentzat. Trantsizio horiek ondo landu behar ditugu eta modu egokia izan daiteke eremuka lan egitea. Hau da, diziplinarrean eta, posible balitz, gelan elkarrekin bi irakasle sartuz.

Gelan irakasle bat egotetik bi egotera pasatzea kultura aldaketa da. Noski, hori ez da egiten egun batetik bestera, hori ez da lortzen dekretu bat argitaratuz; landu egin behar da. Irakasleek sinetsi egin behar dute elkarlanean aritzea hoberena dela ikasleentzat. Horrek dakartzan emaitzak monitorizatzen joan behar dugu eta zikloa praktika onekin blindatzen. Ezin ditugu Lehen Hezkuntzako proiektu batzuk hipotekatu Bigarren Hezkuntzan ez gaudelako prest. Lerrokatu eta trantsizioak ongi egin behar dira.

Ikasleentzat hobe bada, irakasleentzat ere hala izan daiteke, ezta?

Nik beti esaten dut ikaslearen garapena irakaslearen garapena dela eta irakaslearen garapena ikaslearen garapena dela. Denok ari gara hazten

eta janzten. Ezagutzen ditugun praktika on batzuetan irakasleek eurek esaten dute motibatuago daudela eremuka lan eginda. Denbora behar da, baina posible da.

Ebaluazio eredu berri bat eskatzen du honek guztiak, noski.

Bai, ebaluazio hezigarria proposatzen da, hots, arreta jartzea puntu hauetan: zein oztopo ditu ikasleak ikasketa prozesuan? Zer hobekuntza planteatu behar dira? Nola egiten du irakasleak bidelaguntza hori? Hori artea da. Orain arte protagonismo guztia irakasleak eduki du; orain ikasle bati erantzukizun hori emateko oso motibatuta egon behar da eta erreminta berriak erabili behar dira. Curriculum berrian asko hitz egiten da autoerregulazioaz: ikasleak bere gain hartu behar duela ikaskuntza prozesua eta hobetu behar duena identifikatzen lagundu behar diola irakasleak. Aldaketa hori zaila da. Baina apurka-apurka gure ikastetxeak kultura berri horretan murgiltzea lortzen baldin badugu, emaitzak etorriko dira. Aukera hau aprobetxatu behar dugu.

Ebaluazio tresna berriak behar dira, baina inportanteena irakaslearen begirada da. Irekita egon behar dugu apurka-apurka modu berriak gure ikastetxeetan txertatzeko.

Ez ote dira gauza asko irailean martxan jartzeko?

Irailean ezarri behar dela esaten dugunean, horrek ez du esan nahi % 100ean jakitun izan behar dugunik, hau da, jada kompetentzietan lan egin behar dugunik edo ebaluazioa oso menderatua eduki behar dugunik. Curriculumaren garapena urteetako prozesua da, ez da datorren irailean hasi eta 2023ko ekainean bukatuko. Arnas luzeko prozesua da eta prozesuak berak dauka garrantzia. Ikastetxeetan edozein aldaketa eta berrikuntza egiten dugunean prozesuan jarri behar da arreta. Mimo handiz eta zaintza handiz egin beharreko eraldaketa da. Hor dago gakoa eta eraldaketa lideratzeko pertsona egokiak identifikatu behar ditugu ikastetxeetan.

Apurka-apurka egin beharreko aldaketa da, ezin ditugu ikastetxeak



ito, denbora eman behar zaie, iraultza bakoitza bere momentuan. Denbora behar da martxan jartzeko eta emaitzak epe luzera etorriko dira. Baina mugitzen hasi behar dugu, eta bi urte barru eskaparate bat edukiko dugu eta beste motibazio bat ekarriko duela iruditzen zait.

Proiektu anbiziotsua da eta denbora eskatzen du. Horregatik, lasaitasuna, denbora eta bakea behar dira. Berrikuntzak beti dakar antsietatea, berdin da zenbat dakizun, berdin da zenbat prozesu egin dituzun ikastetxean. Horregatik, antsietatea ongi kudeatu behar da eta ikastetxeek espazio lasai bat behar dute beraien aldaketak egiteko. Benetako aldaketa barneratzeko denbora behar da. Nik beti esaten dut gutxienez hiru urte behar direla zantzu batzuk ikusteko.

Ikastetxe bakoitzak bere jauzi propioak egitea lortzen baldin badugu eta hortik hobekuntzak identifikatzea eta irakasleen garapena bultzatzea, uste dut helburua lortuko dugula. Ni oso optimista naiz eta uste dut bada-goela motibazio eta ilusio berri bat.

“Ikasle batek gauzak beste modu batera jasotzeko daukan beharrezana ez badugu sentitzen hezitzaileok, nekez lortuko dugu benetan zerbait esanguratsua egitea”

“Inportanteena irakaslearen begirada da”

“Proiektu anbiziotsua da eta denbora, lasaitasuna eta bakea eskatzen ditu”

ESPERIENTZIAK

SKATEA, EUSKARA BULTZATZEKO TRESNA

Euskaraz irristatuz gozatu

Ikasle askok eskolan soilik izaten dute kontaktua euskararekin, eta euskara ekintza gozagarriekin lotzeak hizkuntzaren erabileran zuzenean eragin dezake. Beraz, garrantzitsua da eskolak ekintza positibo eta erakargarrien bidez euskararen erabilera bultzatzea. Ikasgelako testuingurutik aterata, Gorputz Hezkuntzako orduak aukera paregabea eskaini dezakete euskara eta emozio positiboak uztartzeko, eta beste hainbaten artean, skatea izan liteke euskara gozagarri bihurtzeko tresna.

EUSTATen esanetan, “hizkuntza baten osasuna neurtzeko adierazlerik garrantzitsuen erabilera da”. Ondorioz, azken urteotako bilakaera ikusita, irakasleok gure kezka agertu nahi dugu. Gure errealitate soziolinguistikoan euskara esparru akademikoarekin eta erabilera formalarekin loturiko hizkuntza da; era horretan, ikasle askok euskararekin duten kontaktu bakarra eskola da. Ikasle horiek, euskaraz aritzeko gaitasuna mugatua dute eta euren harremanak gaztelaniaz izaten dira. Jarduera formaletan, aldiz, euskara erabiltzen dute; ikasgelan, alegia.

Hizkuntzaren erabilera beherezko bidean doan heinean, hizkuntza mailak ere behera egiten du, eta kasu askotan euskaraz mintzatzeak urduritasuna sor dezake erraztasun handirik ez izateagatik. Hizkuntza maila heldugabeak ideia osatuga-beak egitera eta hitz-jarioa galtzera garamatza, euskaraz komunikatzeko beldurra sortuz. Aipatutako urduritasuna eta beldurra dira ekua- ziotik ezabatu beharrekoak; hortaz,



IANIRE ELORRIAGA
Lehen Hezkuntzako
Gorputz Hezkuntzako
irakaslea. Sei aldiz
Europako skate
txapelduna izana

gakoa emozioetan zentratzean eta aldaketa bat egitean datza, emozioak esperientziak barnerratzeko baliagarriak baitira.

Arazo horren aurrean, eskolaren lana euskararen erabilera ekintza positibo zein motibagarrien bidez sustatzea da; hau da, ikasleen komunikatzeko gogoia areagotzen duten baldintzak sortzea eta ikasleen hizkuntza akatsei erreparatu gabe euskaraz emozio positiboak bizitzeko aukera eskaintzea. Diber- tituz eta gozatuz emozio positibo- rik baldin badago, bizitako guztia gure garunean grabatuta geldituko da, emozioek garuneko jardueran zuzenean eragiten baitute. Zehaz- ki, sistema linbikoa emozioak pro- zesatzeaz arduratzen den garuneko ataletako bat da, estimulu jakin batzuk eskainiz erantzun emozio- nalak ematen dituen. Hala nola: beldurra, alaitasuna, haserrea...

Nola uztartu euskara eta emozio positiboak ikasgelako testuinguru- tik ateraz baina eskola ordutegian? Gorputz Hezkuntzaren arloa taula gainean jarrita. Jarduera fisikoak endorfinak sortzen ditu gure



nerbio-sisteman; horrela, emozio positiboenak aktibatzeaz gainera, ondo sentiarazten gaitu. Arriskuko kirolak egiten ditugunean, adrenalina askatzeak euforia, energia eta ekintza-ahalmen handiko egoera eragiten du; ondoren, endorfina askatzeari esker, pertsonak erlaxatze-sentsazio atsegina sentitzen du. Prozesu horrek energiaz betetzen gaitu, garaiezin eta boteretsu sentiarazten gaitu. Gure mugak gainditzen ditugunean beldurrak gainditzen eta gure burua hobeto ezagutzen ikasten dugu. Esandako guztia kirol jarduera ugariren bitartez lor daiteke, eta skatea da horietako bat. Skatea praktikatzeak arazoetatik deskonektatzeko aukera ez ezik, gozatzeko une bat ere eskaintzen digu, eta adrenalina deskargatzeak sortzen digun ongizateagatik planik onena irudit

dakiguke. Beraz, euskararen erabilerak ohiturak finkatzeko aisialdian euskararen erabilpena giltzarri dela jakinda, ikasleek skatea euskararekin lotzeak aurretik aipaturiko ondorio onuragarriez gain, badi-tu eskolaz haragoko abantailak, ikasleen eskolaz kanpoko ekintza bilakatu daitekeelako.

Irriek, motibazioek, emozioek... mundua alda dezakete. Edozein ekimenek euskararen aldeko jarrera sortzen badu, hiztun berriak lortzeko aukera handiak izango ditu. Irakasle on lana, euskara ardatz, gure ikasleen jarreraren eragiteko laborategian edota sukaldeetan bezalaxe formula berriak eta erre-zeta arrakastatsuenak topatzea da. Mundua emozioek mugitzen dutela esan ohi dute; beraz, euskara mugitzeko ere ez ote dugu emozioetara jo behar?



**Edozein ekimenek
euskararen aldeko
jarrera sortzen badu,
hiztun berriak
lortzeko aukera
handiagoak
izango ditu.**

EKARPENAK

DRAMATIZAZIOA IRAKASKUNTZAN

Dramatizazioa lehentasunezkoa da

EHAZE Euskal Herriko Antzerkizaleen Elkarteak garbi ikusten du hezkuntza sistema aurrerakoi eta berrituaren lehentasunezko zutabeetako bat dela dramatizazioa, eta horrexegatik aldarrikatzen du dramatizazioa curriculumaren barruan txertatzea gai nagusi edo ardatz irakasgai gisa. Ikaslearen prestakuntzan eta garapenean zergatik den tresna erabilgarria eta garrantzitsua azaltzen du hurrengo orrialdeetan .

Gaur egungo egoerari begira jarrita, orokorrean une honetan daukagun hezkuntza sistemak alde onak izan badituen arren, agerian gelditu dira haren gabeziak, eta horren kontzientzia hainbat eragilek, alderdik, sindikatuk eta era askotako talde eragileok izan dugu. Segur aski, zerrenda luzea egin genezake, baina ahulgune bistakoak honako hauek izan dira, besteak beste:

- **Hizkuntza-ereduen porrota, ez baitute bermatzen haurrak euskalduntzea eta era naturalean euskaraz bizitzea.** Ezarritako ereduak debaluatuz joateaz gain, euskararen erabilera ikasgela barruko jardueretara mugatu da, eta, kasu askotan, integratzailea izan beharrean, kontrako efektua lortu da.

- **Hainbat balio aurrerakoiren gutxiespena, bai gela barruan eta bai kanpoan, balio horiek elkarbizitzarako gizarte jator bat osatzeko ezinbestekoak izan arren.** Adibide eredugarriak ere badira haur askorekin, baina, zoritarrez, ikastetxeetan honako sentazio hauek ikusten eta sentitzen dira gero eta gehiago, neurri handi batean gizartearen bertan ere badirelako: harrokeria, ume baimenduak,



EHAZE
Euskal Herriko
Antzerkizaleen Elkarteak

enpatiarik eza, elkartasunik eza, araurik gabeko haurrak, frustrazioa landu gabeko haurrak, errespeturik eza eta abar.

- **Herri komunitatearen beharra eta haren parte-hartzea ukatzea.** Hots, haur eta gazteen heziketan, irakasle eta gurasoez gain, gizarteak berak ere badu zer esan eta zer egin. Hezkuntza aurrerakoia ezin

da ikastetxeetara edota hezkuntza komunitatera mugatu; aitzitik, egitasmo hezitzaile honetan parte hartu behar dute norberaren komunitate naturalean bizi diren eta jarduten duten bestelako profesional, senide, kolektibitate eta abarrek ere.

- **Arlo humanistikoaren bazterketak.** Ume bat edo gazte bat sendagile, garbitzailea, mekanikoa, arkitektoa edo politikaria izan daiteke etorkizunean, baina den-denak, lehen-lehenik eta gauza guztien gainetik, pertsonak izango dira, eta, zalantzarik gabe, haien jokabidea aurretik landutako eta ereindako heziketak markatuko du. Horren arabera, era bateko edo besteko pertsona izango da. Horregatik, atal humanistikoak lantzen dituzten arloak ezin dira baztertuta egon, gaur egun gertatzen ari den bezala. Musika txirula jotzera mugatzen da kasu gehienetan, plastika ahal duenak ematen du, eta dramatizazioa guztiz baztertuta dago, salbuespenak salbuespen.

Dramatizazioa, bigarren mailako gaia

Gaur egun, gure hezkuntza sistemak ez du dramatizazioa seriotasunez hartzen, eta ez ditu arlo horrek

dauzkan onura eta aukera guztiak aprobetxatzen. Legean “arte” delakoaren barnean dagoen arren, oso ikastetxe gutxitan lantzen da, eta, lantzen denean, arlo artistiko bat bezala lantzen da kasu gehienetan, sustraian eta idiosinkrasian daukan izaera hezitzailea alboratuz. Esan bezala, dramatizazioa toki gutxitan jorratzen da, ia-ia salbuespen gisa; baina esan beharra dago salbuespen horiek direla, hain zuzen, beste hezkuntza mota bat garatu nahi dutenak eta, beren baliabide murriztekin, arlo humanistiko eta hezitzaile hori jorratzeko ahalegina egiten dutenak, ez administratibotik araututa eta bultzatuta dagoelako, ikastetxe zehatz horiek postura hezitzaileari eusten diotelako baizik, eta ahalegin ekonomiko bat egiten dutelako.

Dramatizazioaren eta antzerkigintzaren beharra. Zergatik behar da dramatizazioa ikastetxeetan?

a) Berezko ezaugarriengatik eta izaera baliagarriagatik. Dramatizazioak eta antzerkigintzak dituzten ezaugarriak ez dituzte betetzen beste arloek; beraz, arlo horiek jorratzerakoan, hainbat atal lantzen dira, bai esparru fisikoan, bai intelektualetan eta bai jarreretan. Dramatizazioak ezaugarri asko dauzkan arren, hezkuntzari dagokionez, honako hauek aipatuko ditugu, garbi gera dadin zergatik den garrantzitsua ardatz irakasgai gisa curriculumean sartzea:

- Parte-hartzailea da. Ezartzen diren askotariko dinamikak, jolas dramatikoak, prestakuntzak, eztabaidak, adostasuneko uneak, talde-lanak, egitasmo dramatiko eta hezitzaileak eta abar jorratzeko, ikasle guztien parte-hartzea bultzatzen du.
- Sortzailea da. Ez dago dramatizazioko eskola-ordu bat non ez den zerbait sortzen; etengabeko sormenean jarduten gara, etengabeko prozesu eraikitzailean, ikasturtearen lehenengo egunetik azken egunera arte, era askotako edukiak betetz hainbat helburutara iriste-



ko. Beraz, sormen-prozesu horretan, eta adinaren arabera, hezkuntza-gaitasun guztiak betetzeko aukera ezin hobea dugu.

- Aktiboa da. Jarduera parte-hartzailea eta sortzailea den heinean, ezinbestekoa da era aktiboan garatzea. Ikasleak protagonista sentitzen dira, aktibatuta sentitzen dira, eta egiten dutenak zerbaitetarako balio duela sentitzen dute.
- Espaziala eta denborazkoa da. Dramatizazioaren munduan, dena da posible, dena gerta daiteke. Mundu errealetik mundu irrealera pasa gaitezke zirt-zart batean, eta, beraz, ez gara agertoki batera mugatzen. Dramatizazioak betetzen dituen hezkuntza edukiak toki eta modu anitzetan egin ahal dira, eta egin behar dira. Horrek haurren espazioa eta denbora hobeto ulertzen, kontrolatzen eta haietaz jabetzen lagunduko du.
- Inklusiboa da. Dramatizazioan eta antzerkigintzan, ez da sekula inor baztertuta geldituko; are gehiago, jarduera horrek dauzkan ezaugarriengatik, denon arteko berdintasuna bultzatzeaz gain, jendeak “libreago” mintzatzeko eta adierazteko aukera izango du,

bai ikastordu formaletan (eztabaida eta dinamika normaletan) eta bai dramatizazioak eskaintzen dizkigun roletatik pasatuz uneen-unean (aktore, koreografo, zuzendari, gidoi-gile, publiko...). Beraz, ikasleak egitasmo parte-hartzaile bateko protagonista aktibo eta sortzaileak diren heinean, bermatuta geldituko da denon inklusibitate integrala.

Dramatizazioa parte-hartzailea da. Ezartzen diren askotariko dinamikak, jolas dramatikoak, prestakuntzak, eztabaidak, adostasuneko uneak, talde-lanak, egitasmo dramatiko eta hezitzaileak eta abar jorratzeko, ikasle guztien parte-hartzea bultzatzen du.



b) Artetik harago: dramatizazioaren eta antzerkigintzaren arteko desberdintasunak

Dramatizazioa (0 urtetik 12 urtera). Helburua ez da antzezlan bat egitea; garrantzitsuen prozesua bera da. Garrantzitsuen ez da aktoreak sortzea, pertsonak heztea baizik. Beraz, dramatizazioak eskaintzen dizkigun aukera eta baliabide guztiak haurren esku utziko dira, pertsona gisa garatu daitezen gaur egun eta etorkizunean.

Antzerkigintza (13 urtetik aurrera). Adin batetik aurrera, helburua aldatzen da, eta gazte-nerabe horien interesguneak eta lortu beharrekoak aldatu egiten dira halaber, antzezanari garrantzi handiagoa emanez, jardun horrekin erabat identifikatuta sentitzen direlako.

Beraz, irakaskuntzaren barruan dramatizazioaz ari garenean, ez gara ari antzezlan bati buruz; ez gara jantzi, koreografia edota testu dramatiko bati buruz ari. Horretaz ere bai! Baina ez da garrantzitsuen: irakaskuntzaren barnean, dramatizazioaren funtzioa eta papera askoz harago doa.

Dramatizazioa, irakaskuntzan, ez dugu lotzen artearekin, baizik eta heziketa aurrerakoi, moderno, erakargarri, dibertigarri, motibagarri eta baliagarriarekin, edukiak lantzeko eta helburuak lortzeko. Orain arte, legeak eta araudi guz-

tiek dramatizazioari eman dioten estatusa arte dramatikoarekin lotuta egon da soilik. Eta egia da arte dramatikoa ere badela, baina, hezkuntzari buruz ari garenean, ezin gara horretara mugatu, dramatizazioak dituen ahalbide guztiak alboratuz. Hori Heziketa Fisikoa futbolarekin soilik lotzea bezala litzateke, edo, areago, Athleticekin edo Osasunarekin soilik lotzea bezala. Inork ez luke ulertuko, noski.

Dramatizazioak eta antzerkigintzak bide propio eta autonomia dute arte eszenikotik harago, eta horixe da, hain zuzen, jadanik zenbait tokitan lantzen hasi direna (bai Euskal Herrian eta bai Europako hainbat estatutan, gero azalduko dugunez) eta hezkuntza plan berri honetan, gure ustez, sartu beharko litzatekeena, erabakitazunez eta konbentzimenduz.

Dramatizazioa hezkuntza sistemaren erdigunean. Zertarako? Pertsonak hezteko berezko arlo edo materia gisa, curriculumaren barruan

Arestian aipatu den bezala, helburua ez da aktoreak sortzea, ez da antzezlanak egitea, ez da produktu artistiko bat taxutzea, baizik eta pertsonak heztea, ikasleen prestakuntzaren eta garapenaren prozesuan tresna erabilgarri eta garrantzitsu hau ezartzea. Hortakotz,

hezkuntza gaitasunak jorratzeko, hiru zutabe nagusi hauek planteatzen ditugu:

a) Hizkuntza. Dramatizazioaren edukiak era naturalean lantzen dira, espazio zabalean, jite akademizistatik urrunduz, eta halako giro bat sortzen da ikasleentzat, beste era batean adierazteko eta komunikatzeko. Horrek hizkuntzaren inguruan egin beharreko lan guztia erraztuko digu. Izan ere, euskara “ikastetxeko hizkuntza” izatetik hizkuntza erabilgarri izatera pasatuko da: komunikatzeko, jolasteko, sortzeko, adierazteko, haserretzeko, barre egiteko eta, azken finean, bizitzeko hizkuntza bihurtu beharko dugu. Beraz, programazioetan, edukietan, jolas dramatikoetan eta gure jardura guztietan, hizkuntza izango da beste guztia jorratzeko gure lehenengo zutabea eta abiapuntua. Horretarako, ziklo bakoitzaren hizkuntza premiak aztertuko dira, eta horren arabera estrategiak ezarriko dira.

b) Edukiak. Bigarren zutabe nagusi honetan, eduki pertsonalak, kolektiboak eta teknikoak hartuko ditugu kontuan.

Norberarenak. Askok izan arren eta gehiago zehaztu beharko den arren, eskematikoki esan dezakegu, dramatizazioaren bidez, honako atalak jorratuko ditugula behinik behin:

- Garapen kognitiboa: gorputzaren mugimenduak, ahotsaren intonazioa, bolumena eta kontrola, begiradaren adierazkortasuna...
- Sentimendu eta emozioen lanketa: poztasuna, tristura, frustrazioak, harridura, maitasuna, lotsa...
- Espazioa eta denbora: hurbila, urruna, erreala, irreala..
- Irudimena eta adierazpenak: norberaren adierazpen libreakoren garapena.

Kolektiboak. Gizarte bateko partaideak garen heinean, gizarte aurrerakoi bat garatzeko konpromisoa hartu behar dugu. Zentzu horretan, hezkuntza plan berri honi ezinbesteko ekarpenak egin diezazkiokegu dramatizazioaren eta antzerkigintzaren arlotik.

- Balio aurrerakoiak. Gure gizartearen oinarriak dira elkartasuna, eskuzabaltasuna, adiskidetasuna, norberarekiko eta ondokoekiko errespetua, arduratsua izatea, enpatia, generomberdintasuna, pertsonen arteko berdintasuna, jazarpenmegoerak ekiditea eta horrelako balioak, eta, horren ondorioz, dramatizazioaren bidez landuko diren gai eta formetan isla argia izateaz gain, ezinbesteko abiapuntu-tzat hartuko ditugu.
- Elkarbizitza. Balioekin erabat lotuta dago. Denon arteko bizikidetzaren oinarriak eraikitzeke, ezinbestekoa da nork bere burua ezagutzea eta onartzea, eta, era berean, gure kideak ere onartzea eta haiekin jarrera positiboak izatea.
- Harremanak eta komunikazioa. Euskal gizartea komunikazio eremu handi bat da, eta horregatik, gure jarduera hezitzailearen zati garrantzitsuenetakoa da txikitatik elkar ulertzea, elkarrekin komunikatzen ikastea, adostasunetara iristen ikastea; beraz, jorratu beharreko alderdia da.

Teknikoak. Atal honetan, “humanistikoak” ez diren gaiak sartuko genituzke, baina garrantzitsuak direnak zenbait eduki barneratzeko; esaterako, matematikako kontzeptuak, geografiakoak, etab.

c) Testuinguru kulturala eta soziala. Gure kokapen geografikoa, soziala eta kulturala Euskal Herria denez, dramatizaziotik egin beharreko transmisioa errealitate kultural horrekin lotuta egongo da ekinbide gehienetan: abestietan, testuetan, egitasmoetan, etab.

Aipaturiko hiru zutabe nagusi horietan sakonduz gero, hezkuntzaren gaitasun guztietara iristen da dramatizazioaren bidez, ardatz irakasgai gisa hartzen badugu.

XXI. mendean, dramatizazioari dagokion tokia eman behar zaio, besteak beste, dituen ahalbide guztiak garatu ditzan ikastetxeetan, betiere heziketa aurrerakoi baten barnean.



Irakasleen prestakuntza

Hau guztia egiteko, hezkuntza komunitatearen gehiengoaren adostasuna behar dugu, behar diren baliabide guztiak aktibatzeke. Izan ere, irakasleak prestatu beharko dira, materialak berritu eta sortu, programazio elkartuak egin beharko dira, eta abar. Urteetako lana izango da, baina, zorionez, hainbat urrats jadanik eginda daude, eta esperientziak egon badaude; orokorrean, oso positiboak izan dira gainera.

Esperientziak hemen eta kanpoan

Esan bezala, ez gara hutsetik hasten, jadanik hainbat urtetako eskarmentua dugu. Eta horri esker aurkez dezakegu konbentzimendu osoz proposamen hau: dramatizazioa curriculumaren barruan txertatzea, gai nagusi edo ardatz irakasgai gisa.

Euskal Herrian, erregistrorik ez dagoen arren, dramatizazioa eta antzerkigintza jorratzen dira hainbat tokitan gaur egun. Kasu askotan, curriculumaren barruan (ikastetxeen borondateagatik), eta beste batzuetan, ordutegitik kanpo. Batzuetan, didaktika zehatz baten bidez, beste batzuetan beste dinamika mota baten bidez, baina, orokorrean, badago arlo hau jorratzeko nahia eta beharra hezkuntza komunitatearen barnean; areago, ikastetxe askotan dramatizazioa eskaintzen ez bada, arrazoi ekonomiko hutsengatik da. Une

honetan, Bilbon, Arratian, Uribe Butroen, Uribe Kostan, Debagoienan, Iruñean, Donostian, Iparraldeko zenbait tokitan, Enkarterrin, Txorierrin eta beste hainbat tokitan dramatizazio eta antzerkigintzako eskolak ematen dira, baina horiek guztiek eta etor daitezkeenek abar baten beharra daukate, babes ofizial eta eraginkor bat behar dute, eta, gure ustez, hezkuntza plan berrian agertu behar luke horrek.

Askotan, inguruko herri eta estatuetara begiratzen dugu, ea hezkuntzan hor zehar zer egiten duten ikusteko. Eta esan beharra dago beste toki askotan askoz aurreratua go daudela. Erresuma Batuan, Suedian, Portugalen edo Norvegian, esate baterako, dramatizazioari eta antzerkigintzari egundoko garrantzia ematen diete, erabakitasunez, eta horren ondorioz, curriculumetan sartuta dauzkate. Turkia, Grezia edo Kroazia motelago doaz, baina duintasunez tratatzen dituzte, betiere.

Amaitzeko

Hemen aurkeztu dizueguna eskema bat besterik ez da. Honek guztiak bere garapena beharko luke baldin eta denon arteko adostasuna lortuko bagenu; hau da, dramatizazioari eta antzerkigintzari garrantzia emango bagenie eta hezkuntzaren barruan beren tokian kokatuko bagenitu, curriculum barruko ardatz irakasgai gisa, haurren heziketarako ezinbesteko arloa delako.

EKARPENAK

HEZKUNTZA AKORDIOA

Aniztasuna sustatu, euskal hezkuntza sistema propiorako bidean (eta II)

Aurreko zenbakian atal honetan idatzitako artikularen jarraipena da honako hau. Bietan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako Hezkuntza Legea lantzeko prozesuari begiratu zaio, gurasoen ikuspegitik aurrekoan, eta oraingoan, herri ikuspegitik; hau da, herri izaten jarraitzeko behar dugun hezkuntza sistema aintzat hartuta.

Gatozen gurasoaren begiradatik administrazioarena izan behar duen herri ikuspegira. Administrazioak, haur bakoitzaren garapenik osoena sustatzeaz gain, herriak eta gizarteak dituen premiei eta erronkei erantzuteko gutxienekoak eskatu behar dizkio hezkuntzari: segregazioa eragozteko eta kohesio soziala lortzeko konpromisoak; aukera berdintasuna eta ekitatea; inklusioa eta bakoitzaren ezaugarrien araberrako esku-hartzea; gure herriaren eta gizateriaren historia ezagutzea eta hura ikuspegi kritikoaz interpretatzeko gaitzea; nazio zapaldu bateko eta kultura nahiz hizkuntza gutxitu bateko partaide eta hiztun preziaz izatearen kontzientzia sustatzea; antolaketa parte-hartzailea, komunitatearekiko harreman etengabea, Udal Eskola Kontseiluko gainerako eragileekiko lankidetzat eta abar. Horregatik, Hezkuntza Zerbitzu bateratuan lekua izateko, printzipio batzuk zehaztu dira, nahi-taez oinarritzat hartu beharrekoak: diskriminaziorik eza, gardentasuna, irabazi-asmorik eza, ikasleen anizta-



XABIER SARASUA
Irakaslea eta Hik Hasiko
kidea

sunean arreta jartzea, parte-hartze demokratikoa eta hezkuntza unibertsalerako eskubidea bermatzea (dagoen jatorri- eta gizarte-komplexutasuna bere baitan hartzea).

Baina, hortik aurrera, bai antolaketa eta bai arlo pedagogikoan

gehiago zehaztu, mugatu eta kontrolatu nahi izatea injerentziazat hartu beharko luke edozein hezkuntza erakundek, baldin eta herritik eta herrirako antolatu bada eta autogestionatua izan nahi badu. Utzi berri gaituen Andoni Mujika ekintzaileak zioenez, gure Euskal Herri ekintzaile eta aktibistaren nortasunaren ezaugarri garrantzitsua da premiei eta ilusioei autogestioaren eta lankidetzaren bidez aurre egitea. Ez dezagun ahanzt 1950eko hamarkadatik aurrera ugariak izan direla gure herrian gizarte ekintzailearen bidez abian jarri diren mugimendu autogestionatuak, eta horiek guztiak motibazio hauekin sortu zirela: batzuk, euskara eta euskal kultura berreskuratu eta sustatzeko; beste batzuk, garapen sozioekonomikoa enpresa eredu demokratikoago baten bidez geure eskuetan hartzeko; baina guztiek zuten demokrazian, etikan eta justizia sozialean sakontzeko grina ere. Batez ere, egiteko moduan zegoen gakoa, beren gain hartzen baitzituzten zeuzkaten erronken inguruko erantzukizuna eta eraba-

kitzeko gaitasuna. Izan ere, edozein erronkari lehen pertsona ekiteko modu hori beti da ona, baita hezkuntzan ere, baita gaur egun ere. Prozesuaren protagonistak proiektua garatzeko antolatzea ona da, norbakoak zein kolektiboak konfiantza hartzeko, ahalduztzeko, gobernantza parte-hartzaile baterako eta eguneroko lanaren kudeaketaren eraginkortasunerako. Ildo horretatik, ilusioa pizten duten proiektu berritzaileak aurrera eramateko, ezinbestekoa da profesionalak euren hezitzaile senarekin konektatzea, eta, beren lanbidearen bitartez, beren bizitza proiektua garatzeko aukera izatea. Eta horrek badu zerikusia eskola antolatzeko moduarekin, han parte hartzeko erarekin, erabakimenarekin, komunitatean duen eraginarekin eta aintzatespenarekin.

Ildo horretatik, aurrerapausoa da, zalantzarik gabe, Hitzarmenean ikastetxea oinarritzko administrazio unitatetzat jotzea, eta hari autonomia eta erabakimen handiagoa ematea. Baita udalei eta eskola kontseiluei eskumen eta zeregin garrantzitsuak ematea ere, hezkuntza ez-formaleko eragileekin lankidetzan.

Esan liteke gure aurrekoek gaitasun handia izan dutela hezkuntzak komunitatearen etorkizuneko garapenean garrantzi estrategikoa duela hautemateko; guri dagokigu orain urrats berria norabide egokian egitea. Komunitatearekin adostutako erronkei aurre egiteko, zergatik ez eman bide gainerako eragileekin lankidetzan arituko diren hezkuntza erakunde autoeratuak?

Hezkuntza sistema bateratua sortzeko, ez da aski eragileen interesgatazken arteko oreka bilatzea; ez da aski Euskal Hezkuntza Zerbitzuan (EAEkoan esan nahi da) bide ematea, batetik, zehaztutako konpromiso eta betebeharrak betetzen dituzten gizarte intereseko ikastetxe itunduei eta, bestetik, Administrazioaren titulartasuneko ikastetxeei (guztiei, derrigorrezko inongo eskakizunik gabe, antza denez). Aitzitik, printzipio horiek betetzen dituzten egitasmo guztiek izan beharko lukete lekua euskal hezkuntzaren unibertsoan.

Edo zer atrebentziarekin ukatuko zaie Euskal Hezkuntza Zerbitzuaren labela (bere eskubide, betebeharrak eta baliabide guztiekin) naturarekiko kontaktu estuan hezteko proiektuei; ikasleak adinaren arabera bereizi ordez elkarren zaintzan eta ikasketa partekatuan oinarritzen direnei, eta ikasketak diziplinen arabera antolatu ordez eguneroko bizitzako zereginetan oinarritzen dituztenei; erlijio tradizio zaharretan oinarriturik edo ez, ikasleen barnekotasuna, ongizatea, tratua eta jarrera humanistak sustatu nahi dituztenei; hezkuntza-jarduera guztiak haurren barne-erritmoarekiko begirunez eta haien osotasuna uneoro presente izanik antolatzen ahalegintzen direnei...?

Bioaniztasuna, kultura aniztasuna eta hizkuntza aniztasuna balioetsi dira azken hamarkadetan, haien galera izugarria itzulezina den garaioan. Hezkuntzan, ordea, ez zaio baliorik ematen proiektuen aniztasunari; alderantziz, titularitatean, antolaketan nahiz irizpide eta molde pedagogikoetan, gero eta ozenago entzuten dira uniformizazioaren aldeko ahotsak. Aukera berdintasuna, ekitatea eta horrelako printzipio garrantzitsuak berdintza-lekeriarekin nahasten dira. Aitzitik, hezkuntzan ere, dibertsitatea behar dugu. Barruarekin konektatuta eta komunitatean ondo sustraiturik dau den norbanako aske eta burujabeen garapena sustatzeko, hezkuntza-proiektu autonomo eta burujabeak behar ditugu: tokian tokiko eta unean uneko hezkuntza profesionalak —eta hezkuntza komunitateak, oro har— hausnartu, eta beren haurren hezkuntza ulertzeko modua erabaki behar dute, eta hezkuntza ingurune propioa sortu, antolatu eta eraiki behar dute. Eta zeregin hori ilusioz, uste osoz eta maitasunez egiteko, sobera daude curriculum zehaztuegiak, antolaketa eredu zurrinak, ikaskuntza arloak, denbora eta erritmo markatuak, adinen araberrako ikasmailak eta ebaluazio irizpideak, PISA neurketak, ikuskaritza inkisidoreak eta ikaskuntza jarduera bakoitza justifikarazteko burokraziak.

Zergatik egin uko jada geure baitan

**Hezkuntzan
proiektuen
aniztasunari ez zaio
baliorik ematen;
alderantziz,
titularitatean,
antolaketan, nahiz
irizpide eta molde
pedagogikoetan
uniformizazioaren
aldeko ahotsak gero
eta ozenago entzuten
dira.**

dugun askotariko hezkuntza-errealitateari? Haurren heziketaren gako nagusi bat harengan konfiantza izatean datzala esan dugu lehen. Hezkuntza proiektu bizigarriak eta aberasgarriak izan ditzagun ere, berebizikoa da **konfiantza** izatea proiektu horiek landu, antolatu eta kudeatuko dituzten profesionalengan nahiz haiek elikatuko dituen komunitatearengan.

J.A. Irigaraik ondo zioenez, estadio instituzionalizatu bat ez, baizik instituzionalizatzaile bat lantzeko aukera daukagu.

Aniztasuna, hezkuntza ereduak dagokienez ere, ona baita berez, berezko balioa baitu dibertsitateak. Eta euskal hezkuntza sistema osoari ekarpen erreal eta eraginkorra egiteko modua bakoitzak bere eskola, jarduera pedagogikoa, antolaketa-modua eta erakunde errealtate hobetzeko egin dezakeen lan saiaturia izango da.

0-6 ETAPAKO ADITU TITULUA

- Lehen ikasturtea: **Zaintzaren garrantzia. Emmi Pikler** pediatarren oinarri teorikoa izango da jarraituko den ildo pedagogiko nagusia: zainketak, mugimendu askea, loa, pardel aldaketa, jatorduak, sozializazioa eta abar landuko dira.
- Bigarren ikasturtea: **Pedagogia eraldatzaileak**. Loriz Malaguzzi eta Reggio Emilia, Rudolf Steiner eta Waldorf Eskola, Maria Montessori, pedagogia sistemikoa, Rebeca eta Mauricio Wild eta abar landuko dira.



JIRAFAREN HIZKUNTZA. KOMUNIKAZIO EZ-BORTITZA



Edukiak: adierazpen zintzoa, entzute enpatikoa, gatazken kudeaketa; errurik gabeko guneak sortzeko trebetasuna; gertatzen zaiguna argitzeko trebetasuna; amorruaren kudeaketarako trebetasuna (gurea eta ikasleena); mugak jartzeko trebetasuna; ikasleen autoestimua elikatzeko trebetasuna, gustuko ez diren egoeratan; ikasleen autoestimua elikatzeko trebetasuna, gustuko diren egoeratan; guraso bilerak kudeatzeko trebetasuna; feedback-a eman eta jasotzeko trebetasuna; gure autoestimua elikatzeko trebetasuna.

Formatzailea: Nerea Mendizabal.

Metodologia: online saioa: galderen eta egoeren lanketarako (90'), hilean behin urritik ekainera. Bideoak/audioak: oinarritzko edukiak 9 bideo (30') + 9 audio, hilean behin urritik ekainera.

Materialak: Dokumentazioa + fitxak + KEB gida.

PSIKOMOTRIZITATE ERLAZIONALA

Edukiak: gorputzaren bidezko komunikazioak eskatzen duen errespetuzko entzute, itxarote eta laguntzeko trebetasunak eta gaitasunak eskuratzen hastea haurren garapen aldiak positiboki garatzen lagunduz; haurrek egingo duten jolas librea behatzea; haurren garapen integrala bultzatzea genero ikuspegiaren kontzientzia hartuz; haurrei psikomotrizitate gelan bizi dituzten emozioak onartzeko, ulertzeko eta erregulatzeko errekurtsoak eskaintzea.

Formatzailea: Mapi Urresti.

Metodologia: arlo teorikoa, haurrekin psikomotrizitate saioen jarraipena eta azkenik bizipen saioen arloa.



LEHEN HEZKUNTZA ERALDATZEN

GRADU ONDOKO BI URTEKO FORMAZIO BERRIA

*Eusko Jaurlaritzak eta
Nafarroako Gobernuak
homologatutako
formazioak*

Ikastetxe askotan Haur Hezkuntzako paradigma aldatu egin da eta Lehen Hezkuntzan ere benetako premia dago haurraren jakin-minari eta motibazioari erantzungo dioten ikaskuntza prozesuak abian jartzeko. Horretarako, eta benetan konpetentzietan sakontzeko, bidelagun izango den hezitzaile gogoetatsuak tresnak behar ditu.

Edukiak:

- Tutore gogoetatsuen rola.
- 6-12 adin tarteko haurren ezaugarriak.
- Hezkuntza proiektuaren prozesua.
- Espazioen antolaketa.
- Ebaluazio hezigarria.
- Ikaste-prozesuak ulertzen (ikuspegi sozio-eraikitzailea, psikologia kognitiboa eta neurotzentziaren ekarpenak).
- Pedagogia sistemikoa.
- Oinarrizko konpetentzietan eta arlokoetan sakontzea...

Formatzaileak:

- Aritz Larreta (arduradun pedagogikoa)
- Alvaro Beñaran (formazio pertsonala)
- Ane Ablanedo
- Marisol Uria
- Nora Salbotx
- Neus Sanmartí
- Irene Lopez-Goñi
- Leire Arana
- David Castrillo
- Amaia Arroyo
- Elena Laiz
- ...



AHALDUNTZE ESKOLA

IRAKURKETA OHITURAK

Betaurreko kritikoak jantzita, hobe

Landutako testuak eta liburuak baino gehiago irakurtzen ditugu gaur egun sarean eta sare sozialetan aurkitzen ditugun testu laburrak. Testu luzeak irakurtzeko ohitura galtzen ari gara, eta haur eta gaztetxoak ere ez dira salbuespena. Errealitate hori, batetik, eta ikastetxeetan irakurketa lantzeko plan zehatzik ez izateak edota horiek ez garatzeak, bestetik, kezka pizteko moduko arrazoiak dira: ikasleak ez dira ari irakurtzeko ohiturak garatzen, eta maila nahiko baxua erakusten ari dira. Horrek berak badu beste ondorioz, izan ere, irakurketa maila baxua izanda, nekez iritsiko dira irakurle kritikoak izatera.

Gaitasun literarioa Lehen Hezkuntzan. Irakurleak trebatzeko bidean izeneko tesia aurkeztu berri du EHUKo irakasle eta ikerlari eta HUHEZIKo kolaboratzaile den Nerea Permach Martinek. Euskal Herriko D ereduko ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzan, gaitasun literarioa nola lantzen duten aztertu du. 55 ikastetxek eta 553 irakaslek hartu dute parte ikerketan. Pandemiaren ondorioz, ezin izan ditu Ipar Euskal Herriko datuak bildu, eta aurrerago osatzeko asmoa du. Ikerketak hainbat emaitza utzi ditu, baina ateratako ondorio orokorra hau da: gaur egun ikastetxeetan ez dira jarraitzen gaitasun literarioa lantzeko garaian adituek gomendatzen dituzten irizpideak.

Oro har, hurrek eskolan gutxi irakurtzen dutela dio Permachek, eta horrek, eragin zuzena du irakurketa mailan. Denbora eskaintzea eta askotariko ipuinak eta testu literarioak irakurtzea, ordea, ezinbestekoa da, horrek euren prozesu kognitiboa azkartzea ahalbidetzen dielako. Horrela dio Permachek: “Helburua irakurle konpetenteak sortzea bada, askotariko testuak

eskaintzea ezinbestekoa da, horien funtzio formatiboa edo didaktikoa kontuan hartuta. Horrekin batera eskolan, behintzat, kalitatezko irakurgaiak irakurtzen dituztela bermatu beharko litzateke. Kalitatezkoak, hainbat alderdiri erreparratuz: alderdi literarioa, hizkuntza, egitura, ikaslearen adinerako egokiak izatea, jorratzen duten gaia aproposa izatea... Halaber, aurkezpene zaindua duten liburuak eskaintzea ere garrantzitsua da: ilustrazio

ederrak eta deigarriak dituztenak. Noski, haur literaturak irudimena sustatu behar du, eta alderdi ludikoa ezin da ahaztu: dibertigarria izan behar du”.

Horrez gain, ikasleei hainbat irakurketa mota proposatu behar diegu. “Batuetan, isila, partekatua edota beste batuetan, boz gora irakurtzea eskatuko diegu, zein irakurketa maila duten jakiteko. Irakasleek ikasleei irakurtzea ere garrantzitsua da. Eta proposatzen



Nerea Permach bere tesia eskuetan duela.

den irakurketa zein helbururekin egiten dugun ere begiratu behar dugu: batzuetan helburua ludikoa izango da, eta beste batzuetan funtzionala edota ulermenaren lantzeratutakoa. Helburua irakurketa mota guztiak menderatzea da”, dio Permachek.

Literaturak haurren eta nerabeen garapenean garrantzi handia duela azpimarratu du: “Literatura nortasunaren eraikuntza prozesuarekin bat dator. Izan ere, literatura hizkuntza eta testuinguru jakin baten adierazpen kulturalaren zati da, eta gure kultura nortasuna eraikitzea ahalbidetzen du, nolabait ere, komunitate baten partaide garelako sentiarazten digulako. Era berean, irakurtzea nork bere burua eta beste ikuspegi batzuk ezagutzeko bidea ere bada. Hainbat iritzi eta errealtate alderatzeko eta iritzi propioak eraikitzearen tresna paregabea da. Literaturak gure sentikortasuna garatzen laguntzen du eta pertzepzioaren eta pentsamenduaren zehaztasuna bultzatzen du. Sentsibiltate estetikoak garatzeko aparteko tresna da: sormenari aukerak eskaintzen dizkio eta irudikatzearen beharri ere erantzuten dio”.

Haur eta Gazte Literaturak helduei zuzendutako literatura duen funtzio bera betetzen du, beraz, nork bere burua ezagutzeko, ingurua ezagutzeko, lengoaiarekin harremanetan jartzeko, kultura eta balioak transmititzeko... balio du.

Betaurreko kritikoak

Permachen hitzetan garrantzitsua da txikitatik betaurreko kritikoak janztea: “Estimulu mordoa jasotzen dugu etengabe. Egun jasotzen dugun informazio bonbardaketaren aurrean pentsamendu kritikoa eraikitzea ezinbestekoa da, zeren kritikoa izateak ezagutzak ebaluatzeko eta jasotako informazioa, ikuspuntuak eta ondorioak ezbaian jartzeko aukera ematen digu. Logikaz eta inpartzialtasunez jokatzeko, ideiak identifikatzeko eta horiek garatzeko edo baztertzeko aukera ematen du”. Eta literatura kritikotasuna lantzeko aukera eskaintzen du: “Munduen eta pertsonaren ezagutza



kritikoa eraikitzea ahalbidetzen du, mundu hobea irudikatzearen aukera ematen die haurrei”.

Baina irakurtzeko moduak aldatu egin dira: “Gazteak irakurketa literariotik aldentzen ari dira, bestelako aisialdi ereduen eta euskarrien alde eginez. Kultura alfabetikotik irudietara igaro direla esan dezakegu: eduki bisuala kontsumitzera eta beste modu batera irakurtzera. Testu digitalen ezaugarri bereziak dituzte, izan ere, sarean irakurtzeak testu lau eta lineal batetik testu ireki eta plural batera igarotzea eskatzen du, hau da, hipertestuak edo hipertestuak hitz egin behar da, eta horrek irakurketa prozesua zatitzen eta oztokatzen du jauzika irakurtzen delako. Horrek hausnarketarako eta kontzentrazioarako zailtasunak ekar ditzake, finean, pentsamendu sakonarako gaitasuna galtzea. Zentzu horretan, testu literario analogikoa inoiz baino beharrezkoagoa dela esan dezakegu”.

Errealtate horren aurrean nola hezi ditzakegu ikasleak irakurle kritiko izan daitezen? Honakoa dio Permachek: “Irakurketa kritikoa lantzeko, ikasleak testua aztertzeko eta bertan jasotakoa egia absolutzat ez jotzeko eskatzen diogu. Autorearen mezua ezbaian jartzeko, alegia. Irakurle kritikoa irakur-

tzean jasotzen duen informazioa aurretiko esperientziekin kontrastean jartzen du eta horregatik garrantzitsua da irakurketa mota hau proposatzean alde aurretik dituen ezagutzak aktibatzea”.

Irakaslea, bitartekari gisa, funtsezkoa da gaitasun literarioa lantzeko garaian: “Ikasleen eta literatura-artearen arteko topaketa aberasgarria bilatzeaz gain, testuaren ulermenaren sustatzen duten ikaskuntza egotzak sortu behar ditu eta irakurketa prozesua bera gidatu behar du”. Ikasleak, berriz, literatura ulertzeko gaitasun zehatzak izan behar ditu: “Lengoaia literarioa ulertzea, literatura eskaintzen duen mundu sinbolikoa interpretatzea... Hel- duok bitartekari gisa lagundu behar diegu, entzundakoa edo irakurritakoa uler dezaten eta hortik abiatuta inferentziak egin ditzaten”.

Era berean, garbi izan behar dugu irakurketaren lanketa arlo guztiei dagokiela, ez soilik hizkuntza eta literatura ikasgaiari. Permachek beharrezko ikusten du irakurketari merezi duen garrantzia ematea: “Azken ikerketak gure ikasleen irakurketa maila baxua dela erakusten ari dira, beraz, horretan arreta berezia jartzea ezinbestekoa da. Ulermen maila baxuarekin, nekez egin daiteke irakurketa kritikoa”.

GALDEIDAZU

ZER DIOZUE IKASLEEK IKASTURTE AMAIERAKO AZTERKETEZ ETA SELEKTIBITATEAZ?

bai, joango al gara mendira bihar? Ez, ezin dut, oso lanpetuta eta urduri nabil. Azterketak ditut laster, ezin dut burutik kendu egin behar dudan lan guztia, eta dena pasatu arte ezin izango naiz etxetik atera.

Goian irakurritako egoera ikasle guztiok bizi izan dugu noizbait. Normaltzat hartzen dugun arren, ikaragarritzko pisua du horrek ikasleongan, eta bada garaia gaiari heldu eta horretaz sakon hitz egiteko.

Hezkuntza sistemaren helburu nagusia pertsonak bizitzarako hezteada, edo horrela izan beharko luke behintzat. Hori horrela, argi dago jendartea hezteko tresna eraginkorrena dela hezkuntza, eta, egungo estatuak logika kapitalista neoliberalaren baitan jarduten dutenez, balio kapitalistak erreproduzitzeko mekanismoek ardatzen dute hezkuntza eredua. Horren ondorioz, estatu kapitalistaren balioen baitan hezi, eta sistemaren tresna bilakatzen gaitu hezkuntza sistemak txikitatik. Egungo hezkuntza sistemak, bizitza bizigarriak izango dituzten gaurko eta etorkizuneko herritarrak hezi beharrean, etorkizuneko langile klasea hezten du berari komeni zaizkion moldeen arabera. Horretarako, lan munduan beteko dugun posturako prestatzen gaituzte txikitatik, hainbat eduki barneraraziz, baina, batez ere, sumisioan eta nagusiekiko obedientzian oinarritzen diren balio batzuk sartuz gure DNAn.



IBAI AGIRRE
Ikamako kidea



Ezin dugu ahaztu hezkuntza ardatzen duten interes horien gutxien atzean estatu espainiarra zein frantsesa daudela, mundu mailan nagusi den logika inplementatzen duten estatu egiturak. Bada, gaur egun hezkuntza arautzen duten legeak eta, beraz, curriculumaren zatirik handienak bi estatu horiek erabakitzen dituzte, eta ez Euskal Herriak. Hortaz, bai irakasgaien bidez lantzen dugun edukia eta bai ebaluatzeko modua, gure esku egon beharrean, kanpotik inposatzen zaigun beste elementu bat baino ez dira.

Hizkuntzari dagokionez, zenbait ikasleek euskaraz ikasteko eskubidea dugun arren, badira egun eskubide hori ukatzen zaien ikasleak. Familiaren esfortzuaren bidez urrunera joan behar dutenak euskaraz ikastera, horrek inbertsio ekonomiko handia ekarri arren; edota aukera faltagatik beraien hizkuntzan ikasteari uko egin behar diotenak. Badira, baita ere, euskaraz ikasi arren azterketak frantsesez egitera behartuta dauden ikasleak, eta baxoa horren adibide argia da.

Azterketaz osatutako egutegia

Hezkuntzara eta berori mugitzen duten interesetara itzuliz, argi dago hezkuntzaren helburu nagusia ikasleak hezteada dela. Esan bezala,

estatuek erabakitzen dute zer balioen baitan hezi ikasleak. Balioak, beraz, sistemaren erreproduzioari mesede egingo diotenak izango dira. Sistemaren beharrak aseko dituen langileria sumiso eta akritikoa izateko, lanpostura mugatutako jakintzak dituen, besteak beste. Izan ere, ikasle aktibo, kritiko eta ahaldunduak hezteak kolokan jarriko luke sistemaren iraupena.

Balio horiek zein inposatzen diren oinarritzko edukiak barneratu diren edo ez neurtzeko, ebaluazio sistema deritzoguna dugu. Alde batetik, ikastetxean bertan egiten diren azterketa edo probez osatuta dagoena izango genuke, eta bestetik, ikastetxetik kanpo egiten diren probez osatutakoa.

Lehenengoekin hasteko, esan behar dugu normalean hiruhileko bakoitzeko azterketa bat egiten dela irakasgai bakoitzean gutxienez. Proba horren emaitzak irakasgaiko nota adieraziko du, osorik edo neurri batean, eta hiruhileko guztien batezbestekoa egingo da ikasturte bukaeran. Proba horiek ordubetekoak izan ohi dira, eta hiruhileko guztian zehar landutako edukien gaineko galderei erantzuteko gai garela erakutsi behar dugu ikasleok denbora tarte horretan. Oti 10era bitarteko noten bidez ebaluatu ohi da: 5etik beherako notek gutxiegi ateratzen dela adierazten dute, eta hortik gora jotzen da gainditutzat. Beraz, azterketan gutxiegi ateraz gero, ikaslea ez-gai dela baloratuko da. Ikusten denez, ikasleen arteko bereizketa bultzatzen du ebaluazio eredu horrek, eta noten arabera sailkatuko diren ikasle on eta txarrak sortzen ditu. Ikasteko balio duten eta balio ez duten ikasleak edota lanpostu duin bat izango duten edo prekaritatera kondenatuta dauden ikasleak hezten ditu horrela.

Nota horrek nabarmen eragiten du geure buruaz egiten dugun epai subjektiboan, kategoria batean sartzen zaren unean zure heziketak merezi duen edo ez erabakitzen delako. Nork ez du entzun noizbait irakasleren bat, guri ezer galdetu gabe, gure etorkizunaren gaineko gomendioak ematen? Aipatu behar

da, gainera, ikasleoi arlo guztietan haien moldeen arabera onenak izatea eskatzen zaigula, ezertan espezializatzeko aukera eman gabe. Bidea erabakitzen digute, zer ikasi erabakitzen digute, gustuko dugun horretan gehiago garatzeko aukera ukatzen zaigu, eta gainera, onenak izan behar dugu bizitzako une guztietan, gauza guztietan.

Ikasleon bizipenak

Zer dakarkigu hori aurrera ateratzen behar izateak ikasleoi? Lehen lerroetan adierazi dugunez, etxetik ateratzen gabe edo, gutxienez, lasaitasun osoz ateratzen gabe pasatzen ditugu azterketa aurreko asteak ikasleok. Azterketan sartzen den edukia iren-tsi, eta ahalik eta hobekien memorizatu behar dugu, gero, ordubeteko azterketan, eduki hori bota ahal izateko. Nola ez, zentralitatea hartzen dute ikasleon bizitzetan gerora baliagarriak izango ez zaizkigun azterketek. Izan ere, urduritasunez betetako aste batzuetan ahalik eta eduki gehien xurgatzen saiatzen garen arren, dena ahaztu egiten zaigu azterketa ostean, presioak eta estresak dakarten albo-ondorio bat delako memoria-galerak izatea. Ezin ditugu aipatu gabe utzi azterketaldiek sortzen dituzten ondorio psikosozialak eta horrelakoei aurre egiteko ikasleok ditugun bitarteko eskasak, nahitaez bizi behar dugun egoera bat dela sinetsarazi digutela. Bizi dugun egoera postpandemiko honetan, egoera hori larriagotu egin da, harremanak etetearen ondorioz aurrez genituen babes-sareak galdu baititugu ikasleok.

Jakina da ikasle guztiok ez garela berdinak. Bakoitzak ikasteko modu bat du, kontzeptuak barneratzeko erraztasun edo zailtasun batzuk, adierazpenerako gaitasun desberdinak... Hori guztia ahaztu, eta aniztasunez beteriko ikasleria ebaluazio sistema berdina aplikatuz sailkatzen dute agintariek. Azpimaratu behar da, berdina izateaz gain, inoren beharrak erdigunean jartzen ez dituen sistema bat dela, eta gure bizkar uzten duela edukiak barneratzeko ardura guztia. Izan ere, egunean zazpi ordu pasatzen ditugu

**Ikasle bakoitzak
ikasteko modu bat
du, kontzeptuak
barneratzeko
erraztasun edo
zailtasun batzuk,
adierazpenerako
gaitasun desberdinak...
Hori ahaztu, eta
aniztasunez beteriko
ikasleria ebaluazio
sistema berdina
aplikatuz sailkatzen
dute agintariek.**

gela barruan, eskolatik kanpo lanak egiten beste horrenbeste, astean hamabi ikasgai... Eta edukiak gure egin eta barneratu beharrean, eskola magistralen bidez landutakoak memorizatu eta jakintzat ematen dituzte.

Ezin dugu ahaztu azterketa egiteko orduan izan ahal dugun urduritasunak zein bestelako baldintzek azterketaren emaitza aldatu dezaketela, edota baita horiei aurre egiteko dugun indarra ere. Bidezkoa al da egun bakar batean egindako proba batek ikasturte osoan barneratu duguna ebaluatzeko funtzioa izatea? Ikasleok zaurgarriak izateko eskubidea dugu, hainbat arrazoiengatik atseden hartzeko eskubidea, besteek baino denbora gehiago behar izateko eskubidea... Baina hori ukatu besterik ez zaigu egiten.

Hori guztia gutxi ez, eta ikasleon arteko lehiakortasuna sustatzen dute proba horiek. Ikasle onen eta txarren arteko bereizketa zein errepikatzaileen eta errepikatzen ez du-

Bidezkoa al da egun bakar batean egindako froga batek ikasturte oso batean barneratu duguna ebaluatzeko funtzioa izatea? Azterketaldi traumatikoek ez gaituzte ikasleok ikasketa prozesuaren erdigunean kokatzen.

tenen artekoa adibide batzuk baino ez dira. Horrez gain, gauza jakina da egungo hezkuntza sistemak goia jo duela eta ez dagoela ikasle masa handiak sisteman sartzeko gaitasunik. Eta barruan sartzeko aukera dutenei dagokien ere, ikusi beharko litzateke zein baldintzatan dauden. Arazo hori dela-eta, ikasle guztiek ezin izango dituzte gogoko ikasketak egin. Lehiakortasuna areagotzen laguntzen du horrek, edukiak barneratzeko erraztasunak dituzten ikasleak saritzen baititu, eta gainerakoak baztertzen.

Azken horrek lotura zuzena du ikastetxetik kanpo egiten diren azterketekin. Estatu espainiar osoan selektibitate izenez ezagutzen den proba, hiru eguneko iraupena duena, egin behar dugu milaka ikasle, unibertsitatean sartu nahi badugu. Gure etorkizun guztia proba bakar batean jokatzera kondentatzen gaituzte nolabait; izan ere, unibertsitateko joan nahi dugun ikasleok gure artean lehiatu behar dugu, soilik nota onenak dituztenek eskuratuko baitute nahi dituzten ikasketak egiteko aukera. Berrito ere, hiru egunean zehar egiten diren proba

hutsalekin neurtzen dira bizi osoko ikasketa prozesuaren emaitzak.

Ipar Euskal Herriko ikasleek ere baxoa egin behar dute etorkizuneko ikasketak egin ahal izateko. Azterketa biak espainiar zein frantziar estatuek inposatutako edukiz lepo egoteaz gain eta, beraz, merkatuaren logika barneratu eta sistemarentzat etorkizuneko herritar sumiso eta obedienteak hezteko helburuarekin diseinatuta egoteaz gain, ikasleok ez dugu Euskal Herri osoan bermerik horiek euskaraz egin ahal izateko.

Argi dago hizkuntzaren auzia estatuturik gabeko nazioak zapaltzeko beste mekanismo bat dela; baina ez da bakarra. Selektibitatea eta baxoa ebaluatzeko forma desberdinak dira; lehenengoaren gehieneko nota 14koa da, eta bigarrenarena, berriz, 10ekoa. Eta zer eragin du horrek? Bada, Baionako ikasle batek baxoan 10 atera arren, ezin izango da sartu EHUn 12ko nota eskatzen duten gradu batean. Berrito ere, gure herriaren mugak indartzen dituzte horrela.

Azterketaldi traumatikoek ez gaituzte ikasleok ikasketa prozesuaren erdigunean kokatzen. Ikasleon zaintza guztiz alde batera uzten da. Gure aurretiazko egoera pertsonala zein familiarra dena delakoa izanda ere, presio gogorra jasatera behartzen gaituzte, gure egoera kontuan hartu gabe. Egoera pertsonalak ikasketa baldintzatzen duela errealitatea den arren, azterketen molde antipedagogiko zurrunez ez dute malgutasunerako tokirik uzten. Horrek ikasle kaltetuenen aukerak murrizten ditu, eta mesede egiten dio gutxiengo pribilegiatu bati. Gainera, gure bizkar uzten dute ardura hori guztia, estresa eta presioa kontzentratuz gure gain eta, azterketa garaian, soilik horretan pentsatzeko denbora emanez, ordenagailu eta liburu aurrean orduak eta orduak pasatzera behartuz. Heziketa prozesua urteetan zehar urratu den bide gisa ulertu beharrean, azterketaz beteriko egun zehatz batzuetan ebaluatzen gaituzte. Gainera, esan bezala, esfortzu horrek guztiak ez du zertan islatu geroako emaitzetan.

Beste eredu bat nahi dugu

Horregatik eta gehiagotatik, zaharkituta geratu den hezkuntza eredu baten aurrean gaude, zehazki, azterketaz beteriko eredu baten aurrean. Edukia irentsi eta irentsi egiten dugu, hiruhilekoz hiruhileko azterketen gainean botaka egin arte. Zenbaki huts bihurtzen gaituzte. Izaki konplexuak izatetik azterketetan ateratzen dugun nota izatera pasatzen gara, eta horren ondorioz sortzen den gure gaineko epai batera.

Ikasleok argi eta garbi esaten dugu ez dugula onartzen sistemaren mesedetan antolatutako hezkuntza sistema hau. Sistema neoliberal eta zisheteropatriarkalaren logikari jarraitzen diote hezkuntza sistemak eta haren ebaluazio eredu nazkagarriak. Onena izan behar duzu, besteen gainetik, besteak atzean utzi arte, eta atzean geratzen dena zu bazara, akabo. Norbanako bakoitzen ezaugarriak kontuan hartuko dituen hezkuntza ereduaren alde egin behar dugu ikasleok. Nola ez, gure ahalduz bidean ebaluatuko gaituen eta gure bizitzaren zaintza bermatzeko erremintak eskainiko dituen eredu baten alde.

Erreproduktzioarako makina huts gisa nahi gaituen hezkuntza eraldatzea eta eredu berriak eraikitzea da ikasleon beharrak asetzeko alternatiba bakarra. Horren aurrean, euskal eskola herritar eta burujabea izango da ikasleok aldarrikatuko dugun hezkuntza eredu. Eredu horrek burujabea, nazionala, publikoa eta askatzailea izan behar du.

Ito, isildu, gelditu, beldurtu, koldartu eta bereizi nahi gaituen sistemaren aurrean, ikasleok ez gara geldirik geratuko. Aske bizi-tzea ahalbidetuko digun ikasketa prozesu bat nahi, behar eta merezi dugu. Kritiko izaten irakatsiko digun hezkuntza eredu bat. Ikasleok erdigunean izango gaituena. Edukiak eta ebaluatzeko moduak kontuan izango dituen, eta hementik bertatik sortua. Guk geuk gure eskubideengatik borrokatu ezean, ez duelako inork egingo. Ez digutela ezer oparituko, batu borrokara!

Gora ikasleon borroka!

ARGITALPENAK



ESKOLAKO LEHEN EGUNA

Esther van den Berg

ELKAR - TTARTTALO

Eskolako lehen egunari buruzko liburu dibertigarria da; bai eskolara joateak beldur pixka bat ematen dienez eta bai eskolara joateko irrikaz daudenentzat ere. Papagorritxok lehen eguna du gaur eskolan eta oso ondo pasa du. Lagunekin oso gustura egon da eta, gainera bere kabuz joan da komunera...



IRAKURTZEN EZ ZEKIEN ZAKURRA

Koldo Izagirre - Irrimarra

EREIN

Naroak liburuak zabaldu ditu, baina irakurri? Ikasturtea hasi zenez gerotik ez dute ikusi liburu bakar bat ere irakurtzen. Eta apirila da jada! Zergatik die, ordea, halako gorrotoa liburuei? Erantzun argia du Naroak denen buruan dabilen galderari erantzuteko: planeta hondatzen dutelako. Horregatik ez ditu gustuko liburuak.



ONIN ETA BIDAIA MIRAGARRIA

Ibon Martin Alvarez- Emmanuel Montiel

TRAVEL BUG

Zetaren Bidea ezagutzeko gonbitea egiten digu Oninen abentura berriak. Txinara joango dira kutxa misteriotsu baten bila, arriskuan dagoen elefante bati lagunduko diote, jaken karabana batean joango dira Himalaia mendikatean gaindi eta milaka urteko armada bateko gerlarien artean infiltratuko dira protagonistak.



LURRAREN SEMEA

Txani Rodriguez - Ignacio Fernandez

SAURE

Gure planeta eta ingurugiroa zaintzea zeinen garrantzitsua den erakusten digu komikiak. Manuelek begien aurrean jarriko dizkigu kutsaduraren ondorioak eta denon artean hori gutxitzeko eta espezie guztien biziraupena bultzatzeko tresna paregabeaz hitz egingo digu: birziklatzeari buruz, alegia.



UZTARO 120

Hainbat artean

UEU

Hainbat gairi buruzko artikuluak bildu dituzte 20 autorek baino gehiagok Uztaroaren 120. alean. Tartean, hezkuntza arloko gaiak landu dituzte. Horren erakusgarri, Mikel Gartziazenak eta Jon Altunak idatzitako *Hegoaldeko Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen usteak eleaniztasunari buruz* lana.



KOLORE BATEN JABE

Leo Lionni

KALANDRAKA - PAMIELA

Animalia guztiak dira kolore baten jabe, kameleoiak izan ezik. Bere nortasunaren bila dabilen kameleoi baten istorioa kontatzen digu liburuak. Bila eta bila aritu ondoren konturatzen da kolorez aldatzeari uztea baino garrantzitsuagoa dela kolorea beste norbaitekin partekatzea.

PROPOSAMENA

Mantangorri

Haurrei mundua irekitzeko mila zenbaki

'Berria' egunkariaren 'Mantangorri' gehigarriak mila zenbaki argitaratu ditu dagoeneko. Haurrei gaurkotasunezko gaiak euskaraz gerturatzen dizkie astekariak, mundu mailakoak zein Euskal Herrikoak eta haurrak kazetaritzan murgiltzeko baliagarria zaie ikastetxeei, eduki landuak, ikusgarriak, ilustratuak eta haurrentzako modukoak biltzeko baititu astero.

Haurrak euskarazko hedabideak irakurtzera bultzatzeko helburuarekin sortu zuen *Euskaldunon Egunkaria*-k haurrentzako *Xingola* gehigarria 90eko hamarkadaren bukaeran, eta hura itxi ostean, filosofia berarekin abiatu zuen *Mantangorri* gehigarria *Berria*-k, 2003ko ekainean. “Haurrei irakurzaletasuna eta hizkuntza ohiturak sustatzea da *Mantangorri*-ren atzean dagoen helburua. Horretarako, komunikabideak tresna egokiak dira. Horrez gain, egunkaria irakurtzen hasteko ohitura hartzen joan daitezen ere baliagarria da”, azaldu du Nagore Rodriguez gehigarriaren arduradunak. Alerik ale, milagarren zenbakira iritsi berri da *Mantangorri*.

Gertukoaz nahiz urrutikoaz informaturik egoteko, izpiritu kritikoa elikatzeke eta, funtsean, mundua irakurtzeko kazetaritza behar dugularik, haurrek txikitatik berripa-pera gertuko sentitzeko tresna da *Mantangorri*. “Hori da hain justu *Mantangorri*-ren helburuetako bat,

haurrak kazetaritzaren mundura hurbiltzea, eta egunkariak irakurtzeko ohitura hartzea. Egunerokoan informatzeko ohitura hartzen joan daitezen baliagarria da.”

Informazioa eta entretenimendua eskaintzen dizkie *Mantangorri*-k txikienei, eta gehigarriaren egileek, haurrek euskaraz ongi pasatze horri ere berebiziko garrantzia ematen diote: “Euskararen normalizazioan, oso garrantzitsua da haurrek dena euskaraz irakur dezaten. Denborapasak ere txikitatik euskaraz egitea oso garrantzitsua iruditzen zaigu, gure hizkuntza ondo pasatzeko ere erabil dezaten”.

Sorburutik, eta 90etan *Xingola*-k egiten zuen bezala, ikastetxeekiko harremana zaindu du *Mantangorri*-k: hizkuntza ohiturak sustatzeaz gain, erabilgarria izatea baitu helburu gehigarriak, Nagore Etxeberria astekariaren lehen sortzailearen hitzetan. “*Mantangorri* erabiltzeko tresna bat izatea nahi genuen. Eskoletan eta etxean haurrek astero haien astekaritxoa izateko. Haiek

egindako lanak argitaraturik ikus-tea, marrazkiak zein idazlanak”, azaldu du Etxeberriak.

Ikastetxeentzako material pedagogikoa

2020ko martxoan eredu aldatu zuen *Mantangorri*-k. Eredu berria ikastetxeetan are baliagarriagoa da, gainera, material pedagogiko landua eskaintzen baitu euskaraz bakarra den gisa honetako astekariak. Aha! legin berezia egiten dute horretan, astero, egileek: “Uste dugu material erakargarria eta erabilgarria izan daitekeela eskoletan gaurkotasunezko gaiak lantzeko”. Pare bat urteko hausnarketaren ondoren egin zuten eredu aldaketa: “Unean-unean garrantzitsuak diren gaiak haurrei azaltzeko eredu batean pentsatzen ari ginen. Izan ere, egunero haurrek inguruan gertatzen diren gai asko entzuten dituzte hedabideetan, baina ez dira haiei begira eta eurek ulertzeko moduan azaltzen. Garrantzitsua iruditzen zitzaigun inguruan edo munduan gertatzen



diren gai horiek hurrei azaltzea, eta euskaraz. Munduan badaude eredu gutxi batzuk, Frantziako eredu bat asko gustatu zitzaigun eta hortik tiraka hasi ginen gure eredu pentsatzen. Horretan ari ginela iritsi zen pandemia: koronabirusa toki guztietan azaltzen hasi zen, eta momentu aproposa iruditu zitzaigun gaurkotasunezko gaiak lantzen hasteko: zer gertatzen ari zen? Zer zen koronabirusa? Zer pandemia...? 2020ko martxoaren 25ean atera genuen aktualitateko lehen zenbakia koronabirusari eskainia”.

Landutako gaien artean daude, mundu mailakoak zein Euskal Herrikoak: klima larrialdia, migrazioak, euskal margolariak, arrazakeria, LGTBI mugimendua, Altzoko Handia, Durangoko Azoka, txertoak, Frantziako hizkuntza gutxituen legea, Maiatzaren lehena, Israel-Palestina gatazka, Iñigo Muguza eta RRV, hegazti migrazioak, Martin Ugalde, Esther Ferrer, Eduardo Txillida, Ukrainako gerra, Korrika...

Erreportajeez gain *Mantangorri*-ko beste atal batzuk ere erabili izan dituzte eskoletan. Adibidez, Iñaki Martiarena *Mattinek* egindako Belardoren komikiak, istorioak sortu eta ahozkotasuna lantzeko erabiltzen dituzte ikastetxe batzuetan. Txillida Lekun, berriz, material didaktiko gisa erabiltzen dute astekarian artistari buruz argitaratutako erreportajea.

Ilustrazioak beti izan dira *Mantangorri*-ren ezaugarri, eta haiei esker, irakurterrazago bihurtzen dira landu nahi dituzten edukiak. Besteak beste, hurrek Eider Eibar, Ainara Azpiazu Axi, Irriarrako Karmele Gorroño eta Irene Gutierrez, Anne Baskaran, Sandra Garayoa, Jose Belmonte edota Maite Gurrutxagaren lana ezagutzeko aukera izan dute. Horiez gain, *Mantangorri*-ren hasieratik dago Mattin Belardoren umorezko komikiak egiten eta Kaiet Bengoetxea, denbora-pasak eta ilustrazioak egiten.

Jai batekin ospatu zuten milagarraren zenbakia, Txillida Lekun.



Mantangorri astekaria

Argitaratzailea: *Berria* egunkaria
www.berria.eus

Edukiak

- Zorion agurrak.
- Elkarriketa.
- Gai nagusia.
- Posterra.
- Denbora pasak.
- Irrien Lagunak Klubaren esperimntua.
- Belardoren tira.

ATZEKO ATETIK



IKASTURTE BERRIA

IRUNE GARAIKOETXEA DIAZ
IRUÑEKO BIURDANA INSTITUTUKO
DBH 4. MAILAKO IKASLEA

Gaur zuzendaritza taldeak esan digu datorren ikasturterako ikasgaiak eta ordutegiak gure esku geldituko direla. Aukera ikusita, taldea elkartu eta honakoa baloratu dugu: hurrengo ikasturteko antolakuntza nahi dugun modukoa izateko, hoberena ikasle guztien iritzia jakitea izango litzatekeela.

Lehenik eta behin, ikasle guztiei inkesta bat bidali diegu, non gure galderak erantzun dituzten eta haien proposamenak gehitu dituzten.

Inkestako erantzunak hausnartu ondoren asanblada ireki bat egin dugu animatuta eta interesatuta dauden ikasleekin, eguneratuta egoteko.

Asanbladan hainbat gai atera dira eta gehien errepikatu direnak hauek izan dira: ratioak jaitziaztea, ordutegia murriztea, azterketak sakabanatzea eta lanek azterketek baino pisu handiagoa izatea ebaluazioan.

Azken urte hauetan nire gelan 30 pertsona egon gara ikastetxeko gelarik txikienean. Irakasleek klasean erne mantentzeko eskatzen jarraitzen dute, 30 ikaskiderekin eta

espaziorik gabe egon arren. Ulertezina da gela txiki batean ikasle asko egotea eta handiagoa den ondoko gela hutsik egotea.

Maila batean, adibidez, lau gela baldin bagara, hoberena beste talde bat ateratzea izango lirateke, gela bat gehiago erabiltzea, eta horrela gelan espazio gehiago izango genuke.

Bestalde, ordutegiaren murrizketaz aritu gara eta hainbat eztabaida izan ditugu: batzuek ordutegia gehiegizkoa dela pentsatzen dute eta beste batzuei ongi dagoela iruditzen zaie. Baina guztiok konklusio berera iritsi gara: irakasleek sei orduetan, saio guztietan, ikasteko gaitasun bera izatea eskatzen dugu. Ikasleok saiatzen gara ulertarazten ezin garela egon ikasteko gaitasun berberarekin goizean edo eguerdiko ordubietan.

Ikasleok azterketekin nazkatuta gaude, urtero gauza bera gertatzen delako. Hainbat aste dauzkate azterketak jartzeko eta horrela sakabanatuagoak egoteko, baina denek aste berean jartzen dituzte. Eta orduan, betikoa gertatzen da:

ikasleok arazoak izaten hasten gara eta, batez ere, arazo psikologikoak izaten. Okerrena da normalizatu egin dugula ikasketengatik arazo psikologikoak izatea eta agobiatzea, lo gutxi egitea eta abar.

Ikasle askok esan dugu azterketekin ez gaudela batere motibatuak eta, azken finean, ez dugula ezer ikasten. Aldiz, lanak bidaltzen dizkigutenean askoz gogotsuago hartzen ditugu saioak. Ikasteko askoz ere baliabide ulergarriagoak dira azterketa baino.

Azterketetan buruz ikasten dugu, gero azterketan botatzeko eta klasetik ateratakoan jadanik ikasitako guztia ahaztuta dugu.

Horregatik, ebaluaketan zehar lan gehiago egitea gustatuko litzazuke eta gero notan, lanak azterketak baino pisu handiagoa izatea.

Proposamen horiek guztiak zuzendariarengana eramango ditugu eta ikasleei asanbladan hitz egindako guztia jakinaraziko diegu.

Ikasleriaren batasuna beharrezkoa da dinamika hau aurrera eramanez, guztiok hezkuntza honekin nazkatuta gaudelako!!!!



EGIN HARPIDETZA!

**ETA JASO ELKAR DENDETAN
ERABILTZEKO 10€-KO BONOA!**

Irria aldizkaria ezagutu nahi duzu eta oraindik ez zara harpide?

Bete www.irrienlagunak.eus webgunean topatuko duzun formularioa eta azken bi aleak jasoko dituzu deskargatzeko moduan.

**URTEAN
49€**



HARPIDETZA EGITEKO AUKERAK:

Telefonoz: (0034) 943 304 332 zenbakira deituz

E-posta: harpidetza@irrienlagunak.eus helbidera idatziz.

www.irrienlagunak.eus/harpidetza-n izena emanaz.

Baliatu gure eskaintza berezia eta jaso urtean iRRiAren 10 ale etxean!!

UDAKO TOPAKETAK 2022

Uztailak 4, 5 eta 6, Donostian



hh
hik hasi

Universidad
del País Vasco

Eusko Herriko
Unibertsitatea

ELKARO
MAGAZKUNAK
GURE HIRIA YOCOS

Departamento
de Educación
y Formación
Profesional

Donostia 1000

Ikastaroak:

Lehen Hezkuntza eraldatzen | Argiaren pedagogia | Neurosiaren prebentzioa bizitzaren hasieran | Pintura, buztina eta mugimenduen bidezko espresioa | Haurtzaroan bidelagun Montessoriren ikuspegitik | Jolastokia, eskolako espazioa? | Mugak jarri autoestimua zainduz | Natura eskura | Hausnarketa lantzen elkarriaketa kooperatiboaren bidez | Heziketa eta astrologia psikologikoa: iraultza pedagogikoa bat | Heriotzaren lanketa | Dislexia | Entrenamendu mentalak eta ametsak aztertuz, zoriotsu! | Euskara bereganatzea Haur Hezkuntzan | Irakasle berritsuak Lehen Hezkuntzan | Nerabeei hizkuntza-sozializazioan laguntzearen erronka | Sortuz eta sortuz, kontatu | Eskola kirola gogoeta kolektiborako tresna | Sormenean hezi, kultura bizi | Irakaslearen lanketa pertsonala | Zaintza guñak: norbera zainduz, bestea zaindu | Yoga eta kontzentrazio teknikak eskolan | Zirimiri: oinarritzko yoga teknikak ikasgelatan ongizatea lantzeko | Neuroludokinestesia | Antzerki teknikak: hezkuntzarako tresna pedagogikoa | Familiaren eta eskolaren arteko elkarlana ikuspegi sistemikotik | Zuzendaritzarako formakuntza sistemikoa | Bizitzaren eta bizitzarako pedagogia sistemikoa | Gamifikatu... eta irabazi! | Matematika eskuetan, goazen jolastera! | Fisikaren eta Kimikaren ikaskuntza IKD3 eredu.

www.hikhasi.eus